2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

02 Kultura eta Hizkuntza Politika

Cultura y Política Lingüística

HABE

EITB Taldea
Grupo EITB

Etxepare Euskal Institutua

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi

Euskal Herriko Gazte Orkestra
Joven Orquesta de Euskal Herria

Basque Team

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PROIEKTUA - PROYECTO

euskadi.eus

2027

AURREKONTU OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoa

PRESUPUESTOS GENERALES

Comunidad Autónoma de Euskadi

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PROIEKTUA - PROYECTO

euskadi.eus

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2026ko urria / 1a, octubre 2026

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

02-KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
02-CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA 6

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas 7

Gastuen egoera-orria
El Estado de Gastos 61

4511 Kultura/Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Cultura y Polít. Lingüistica 62

4512 Kirolak
Deportes 66

4513 Kulturaren Sustapena
Promoción de la Cultura 73

4514 Ondare Historiko Artistikoa
Patrimonio Histórico Artístico 82

4515 Gizarte Hedabideak
Medios de Comunicación Social 90

4711 Hizkuntza Politika
Política Lingüística 92

5414 Berrikuntzarako Funtsa
Fondo de Innovación 101

Sarreren egoera-orria
El Estado de Ingresos 102

4511 Kultura/Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza
Estructura y Apoyo de Cultura y Polít. Lingüística 103

4512 Kirolak
Deportes 104

4513 Kulturaren Sustapena
Promoción de la Cultura 105

4514 Ondare Historiko Artistikoa
Patrimonio Histórico Artístico 106

Gastuen laburpenak
Resúmenes de Gastos 107

Sarreren laburpenak
Resúmenes de Ingresos 114

ORGANISMO AUTONOMOAK
ORGANISMOS AUTÓNOMOS 116

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)
Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos 117

ENTE, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS 171

Euskal Irrati Telebista Taldea
Grupo Euskal Irrati Telebista 172

Euskal Irrati Telebista
Euskal Irrati Telebista 173

EiTB Media, S.A.U.
EiTB Media, SAU 194

EITB Taldea
Grupo EITB *220*

Etxepare Euskal Institutoa
Instituto Vasco Etxepare *225*

Euskadiko Orkestra SA
Orquesta de Euskadi, S.A. *248*

Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa
Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria *267*

BASQUE TEAM Fundazioa
Fundación BASQUE TEAM *287*

02-KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
02-CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak arlo hauetan egituratzen du bere jarduera: Kultura, Hizkuntza Politika, Jarduera Fisikoa eta Kirola eta, azkenik, Gizarte Hedabideak.

Arlo horietako bakoitzak, bere eskumenen esparruan eta XIII. Legegintzaldirako 2024-2028 Gobernu Programan ezarritako konpromisoekin bat etorriz, Sailaren politika publikoak garatzen laguntzen du, 2027ko ekitaldirako ezarritako lehentasun eta jarduera-ildoen bidez.

Memoria honek 2026an egindako aurrerapen nagusiak eta 2027rako aurreikusitako lehentasunak eta jardun-ildoak jasotzen ditu, Sailak bultzatutako politika eta proiektu estrategikoei jarraipena emanez.

Arlo horiek guztiek zeharka txertatzen dituzte emakumeen eta gizonen berdintasuna eta euskararen normalizazioa beren politiketan eta administrazio-jardunean, berdintasunaren eta euskararen arloan Sailak dituen plangintza-tresnen bidez.

Jarraian, arloz arlo, 2026ko aurrerapen nagusiak eta Sailak 2027ko ekitaldian garatuko dituen jardun-ildo estrategikoak aurkezten dira.

KULTURA: EUSKAL KULTURA-SISTEMA INDARTZEA ETA GURE ONDAREA BABESTEA ETA PROIEKTATZEA

Kultura Sailburuordetza bi zuzendaritza nagusitan egituratuta dago: Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza eta Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritza. Lehenengoari dagokio Kultura-Ondarea Materiala eta Immateriala baloratzea, babestea, balioestea eta hedatzea, eta liburutegiei, fisiko eta digitalak, artxibategiei eta museoei laguntza ematea eta baita ere Jabetza Intelektuala eta Lege Gordailua kudeatzea. Bigarrenaren eginkizunak, berriz, honako hauek dira: gure herriko kulturaren eta arteen adierazpideen sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea bultzatzea (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, literatura-argitalpenak, etab.), eta Kultura eta Sormen Industrien politikak.

INTRODUCCIÓN

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco se estructura en las siguientes áreas de actuación: Cultura, Política Lingüística, Actividad Física y Deporte y, por último, Medios de Comunicación Social.

Cada una de estas áreas contribuye, en el ámbito de sus competencias y de acuerdo con los compromisos establecidos en el Programa de Gobierno 2024-2028 para la XIII Legislatura, al desarrollo de las políticas públicas del Departamento, a través de las prioridades y líneas de actuación establecidas para el ejercicio 2027.

La presente memoria recoge los principales avances realizados durante 2026 y las prioridades y líneas de actuación previstas para 2027, dando continuidad a las políticas y proyectos estratégicos impulsados por el Departamento.

Todas estas áreas integran de forma transversal la igualdad de mujeres y hombres y la normalización del euskera en sus políticas y en su actividad administrativa, a través de los correspondientes instrumentos de planificación departamental en materia de igualdad y de euskera.

A continuación, se presentan, área por área, los principales avances de 2026 y las líneas estratégicas de actuación que desarrollará el Departamento durante el ejercicio 2027.

CULTURA: FORTALECER EL SISTEMA CULTURAL VASCO Y PROTEGER Y PROYECTAR NUESTRO PATRIMONIO

La Viceconsejería de Cultura articula sus políticas a través de la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal y de la Dirección de Promoción Cultural, Industrias Culturales y Creativas. A la primera le corresponde la protección, puesta en valor y difusión del patrimonio cultural vasco, así como el desarrollo de los sistemas de museos, archivos y bibliotecas, la digitalización del patrimonio cultural y la gestión de las competencias en materia de propiedad intelectual. Por su parte, la Dirección de Promoción Cultural, Industrias Culturales y Creativas tiene entre sus principales cometidos el impulso a la creación, producción y difusión de las diferentes expresiones culturales y artísticas, así como el desarrollo de las Industrias Culturales y Creativas.

Legegintzaldi honetan, helburu nagusietako bat da kultura Jaurlaritzaren egiturazko politiken erdigunean kokatzea, beste politika batzuekin batera, Euskadiren lurralde-garapenerako aukera gisa. Ildo horretan, kultura aktibazio sozioekonomikoko ardatzekin lankidetzan jarduteko zeharkako elementutzat hartzen da, gizartea eraldatzeko faktoretzat, oparotasuna eta aukerak sortzen dituen sektore profesionaltzat eta, aldi berean, eraldaketa sakonean murgilduta dagoen esparrutzat.

KULTURA SUSTAPENA, KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK: 2026an urrats bereziki garrantzitsuak egin dira euskal kultura-sistema sendoagoa, koordinatuagoa eta egonkorragoa eraikitzeko. Horien artean nabarmentzekoa da Euskadiko Kultura Sistemaren Legearen izapidetzea hasi izana, legegintzaldiko egiturazko proiektu nagusietako bat, sistema hobeto antolatu eta egituratzeko, erakundeen arteko koordinazioa indartzeko eta sektoreari egonkortasun handiagoa emateko helburuarekin.

Prozesu horretan, Sailaren plangintza estrategikoan aurreikusitako erakundeen arteko lankidetza- eta kultura-gobernantzako mekanismoak ere sendotu dira, baliabide publikoen erabilera koordinatua sustatuz eta kultura-politikak planifikatzeko, ezagutzeko eta ebaluatzeko gaitasuna indartuz. Esparru horretan, nabarmentzekoa da SAREA-Euskadiko titulartasun publikoko espazio eszenikoen sarearen funtzionamendua eta gobernantza-sistema arautzen dituen dekretua onartu izana. Era berean, Euskal Arte Sistemaren garapenak garrantzi berezia hartu du, Euskadiko kultura-zentro nagusietako batzuen arteko lankidetza handiagoaren bidez; besteak beste, Bilboko Arte Ederren Museoa, Artium Museoa, Tabakalera, BilbaoArte, San Telmo Museoa eta Chillida Leku.

Egiturazko aurrerapen horiekin batera, 2026an aurrekontu-betearazpen maila handia mantendu da kultura-sorkuntza, -ekoizpena eta -zabalkundea babesteko politiketan, eta arte-arlo desberdinetara, arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, arte plastiko eta bisualak eta liburua, zuzendutako dirulaguntza-ildo eta programa nagusien jarraipena bermatu da. Jarduera horri esker, euskal kultura-ekosistema indartu, sormen-proiektuen garapena erraztu eta kultura-eragileen prestakuntza eta profesionalizazioa sustatu dira, eta, aldi berean, talentuaren eta kulturaren sektore profesionalen balio-kate osoaren aldeko apustu iraunkorrari eutsi zaio, ikus-entzunezkoen sektorea bereziki indartuz. Kultura-ekoizpenari eta -zabalkundeari emandako etengabeko babesak, halaber, lurralde osoan herritarrentzako kultura-programazio anitza eta irisgarria sustatzen lagundu du.

Durante esta legislatura, uno de los principales objetivos es situar la cultura en el centro de las políticas estructurales del Gobierno, junto con otras políticas, como una oportunidad para el desarrollo territorial de Euskadi. La cultura se concibe, en este sentido, como un elemento transversal de colaboración con los ejes de activación socioeconómica, como un factor de transformación social, como un sector profesional generador de prosperidad y oportunidades y, al mismo tiempo, como un ámbito inmerso en una profunda transformación.

PROMOCIÓN CULTURAL, INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS: Durante 2026 se han dado pasos especialmente relevantes en la construcción de un sistema cultural vasco más sólido, coordinado y estable. Entre ellos destaca el inicio de la tramitación de la Ley del Sistema Cultural de Euskadi, uno de los principales proyectos estructurales de la legislatura, orientado a ordenar y articular mejor el sistema, reforzar la coordinación institucional y proporcionar mayor estabilidad al sector.

En este proceso se han consolidado también los mecanismos de colaboración institucional y de gobernanza cultural previstos en la planificación estratégica del Departamento, favoreciendo una utilización coordinada de los recursos públicos y reforzando la capacidad de planificación, conocimiento y evaluación de las políticas culturales. En este ámbito destaca la aprobación del decreto que regula el funcionamiento y el sistema de gobernanza de SAREA-Red de espacios escénicos de titularidad pública de Euskadi. Asimismo, ha adquirido especial relevancia el desarrollo del Sistema Vasco del Arte, mediante una mayor colaboración entre algunos de los principales centros culturales de Euskadi, entre ellos el Museo de Bellas Artes de Bilbao, Artium Museoa, Tabakalera, BilbaoArte, Museo San Telmo y Chillida Leku.

Junto a estos avances de carácter estructural, durante 2026 se ha mantenido un elevado nivel de ejecución presupuestaria en las políticas de apoyo a la creación, producción y difusión cultural, garantizando la continuidad de las principales líneas de subvención y programas dirigidos a los distintos ámbitos artísticos, artes escénicas, música, audiovisual, artes plásticas y visuales y libro. Esta actuación ha permitido reforzar el ecosistema cultural vasco, facilitar el desarrollo de proyectos creativos y favorecer la formación y profesionalización de sus agentes, manteniendo una apuesta sostenida por el talento y por toda la cadena de valor de los sectores profesionales de la cultura, con un especial refuerzo del sector audiovisual. El apoyo continuado a la producción y difusión cultural ha contribuido, asimismo, a favorecer una programación cultural diversificada y accesible para la ciudadanía en el conjunto del territorio.

Nazioartekotzea 2026ko mugarri garrantzitsuenetako bat izan da. Etxepare Institutuarekin lankidetzan, euskal sortzaile, profesional eta kultura-ekoizpenen nazioartekotzea eta nazioarteko azoka eta guneetan duten presentzia sustatzen jarraitu da. Euskal arteak ARCOn eta, bereziki, Veneziako Bienalean, berrogeita hamar urteren ondoren, izan duen presentziari esker, arte garaikidearen nazioarteko erakusleiho nagusietako batean presentzia nabarmena berreskuratu da. Aldi berean, eremu frankofonoarekin harreman berriak ireki dira Ça colle au basque proiektuaren bidez eta Sorbona eta Sorbonne Nouvelle bezalako erreferentziazko unibertsitateetan egindako topaketa eta kongresuen bidez.

Bestalde, aurrerapen esanguratsuak egin dira Kultura eta Sormen Industriak Euskadiren kultura- eta ekonomia-garapenerako esparru estrategiko gisa sustatzeko. Enpresei laguntzeko tresnen, artista eta sortzaileei zuzendutako jardunbide egokien eta ezagutzaren gida baten eta sektorearen berrikuntza eta eraldaketa digitalaren bidez, sektoreko enpresa eta profesionalen gaitasunak indartu dira, lehiakortasunerako, lankidetzarako eta nazioartekotzerako aukera berriak sustatuz. Jarduera horietara bideratutako baliabideen betearazpenak euskal kultura- eta sormen-ekosistema modernizatzera eta modu jasangarrian haztera bideratutako ekimenak sendotzea ahalbidetu du.

Aurrerapen horien guztien bidez, 2027ari oinarri sendoago batetik ekin ahal izango zaio, euskal kultura-sistema, haren sormen- eta lanbide-sarea eta kanpo-proiekzioa indartzen jarraitzeko.

XIII. Legegintzaldiko Gobernu Programarekin, 2022-2028 Kultura Planarekin eta Kultura Sailburuordetzaren 2030 Agendarekin bat etorriz, kultura sustatzeko politikak lau helburu nagusiren inguruan egituratuko dira: erantzunkidetasunean eta kultura-gobernantzan sakontzea; euskal kulturaren sorkuntza eta ekoizpena eta hura zabaltzeko sistema publikoak indartzea; euskal kulturaren ikusgarritasuna handitzea; eta Kultura eta Sormen Industriak berrikuntzaren eta eraldaketa digitalaren bidez sustatzea.

Kultura-gobernantzari dagokionez, euskal kultura-ekosistema osatzen duten erakundeen eta eragileen arteko lankidetzan eta erantzunkidetasunean sakonduko da, gobernantza partekaturako tresnen bidez proiektu estrategikoak garatuz. Era berean, ezagutzak toki nagusia izaten jarraituko du kultura-politikak definitzeko eta ebaluatzeko orduan. Horretarako, Kulturaren Euskal Behatokiaren eginkizuna indartuko da, sektorearen bilakaera ezagutzeko eta politika publikoak orientatzeko estatistikak, azterlanak, analisiak eta adierazleak sortzeko tresna gisa.

Kultura-sorkuntzaren eta -ekoizpenaren esparruan, arte-arlo desberdinetan, arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, arte plastiko eta bisualak eta liburua, sorkuntza babesteko politikak mantendu eta indartuko dira, talentua garatzeko aukerak handituz eta kultura-sortzaileen, -ekoizleen eta -profesionalen prestakuntza eta profesionalizazioa sustatuz. Era berean, kultura-ekoizpena babesteko tresnak eguneratzen eta indartzen jarraituko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta euskararen presentzia sustatuko da sustapen-politiketan.

La internacionalización ha constituido otro de los hitos más relevantes de 2026. En colaboración con el Instituto Etxepare, se ha continuado impulsando la internacionalización de las personas creadoras, profesionales y producciones culturales vascas y su presencia en ferias y espacios internacionales. La presencia del arte vasco en ARCO y, especialmente, en la Bienal de Venecia, cincuenta años después, ha permitido recuperar una presencia destacada en uno de los principales escaparates internacionales del arte contemporáneo. Paralelamente, se han abierto nuevas relaciones con el ámbito francófono a través del proyecto Ça colle au basque y de encuentros y congresos desarrollados en universidades de referencia como la Sorbona y la Sorbonne Nouvelle.

Por otra parte, se ha avanzado significativamente en el impulso de las Industrias Culturales y Creativas como ámbito estratégico para el desarrollo cultural y económico de Euskadi. A través de instrumentos de acompañamiento empresarial, la elaboración de una guía de buenas prácticas y conocimiento dirigida a artistas y personas creadoras y el impulso de la innovación y la transformación digital, se han reforzado las capacidades de empresas y profesionales del sector, promoviendo nuevas oportunidades de competitividad, cooperación e internacionalización. La ejecución de los recursos destinados a estas actuaciones ha permitido consolidar iniciativas orientadas a la modernización y al crecimiento sostenible del ecosistema cultural y creativo vasco.

El conjunto de estos avances permite afrontar 2027 desde una base más sólida para seguir fortaleciendo el sistema cultural vasco, su tejido creativo y profesional y su proyección exterior.

En coherencia con el Programa de Gobierno de la XIII Legislatura, el Plan de Cultura 2022-2028 y la Agenda 2030 de la Viceconsejería de Cultura, las políticas de promoción cultural se articularán en torno a cuatro grandes objetivos: profundizar en la corresponsabilidad y la gobernanza cultural; reforzar la creación y producción de la cultura vasca y los sistemas públicos para su difusión; aumentar la visibilidad de la cultura vasca; e impulsar las Industrias Culturales y Creativas a través de la innovación y la transformación digital.

En relación con la gobernanza cultural, se profundizará en la cooperación y corresponsabilidad entre las instituciones y los agentes que conforman el ecosistema cultural vasco, desarrollando proyectos estratégicos a través de los diferentes instrumentos de cogobernanza. Asimismo, el conocimiento continuará ocupando una posición central en la definición y evaluación de las políticas culturales. Para ello, se reforzará el papel del Observatorio Vasco de la Cultura como instrumento para generar estadísticas, estudios, análisis e indicadores que permitan conocer la evolución del sector y orientar las políticas públicas.

En el ámbito de la creación y la producción cultural, se mantendrán y reforzarán las políticas de apoyo a la creación en los distintos ámbitos artísticos, artes escénicas, música, audiovisual, artes plásticas y visuales y libro, incrementando las oportunidades para el desarrollo del talento y favoreciendo la formación y profesionalización de las personas creadoras, productoras y profesionales de la cultura. Se continuará asimismo actualizando y fortaleciendo los instrumentos de apoyo a la producción cultural y se impulsará la presencia de la igualdad entre mujeres y hombres y del euskera en las políticas de fomento.

Sorkuntza eta ekoizpena babestearekin batera, kultura zabaltzeko sistema publikoak eta publikoen politikak indartuko dira. Arte eszenikoen eta SAREA Euskal Antzoki Sarearen arteko harremana sendotzen jarraituko da, baita Euskadin eragina duten jaialdi, zirkuitu, azoka eta bestelako kultura-proiektuei ematen zaien babesa ere. Era berean, publikoak sortu, fidelizatu eta handitzera eta kultura-ohiturak sustatzera bideratutako proiektuak bultzatuko dira, kultura-eskaintza gizarte osora hurbiltzeko helburuarekin.

Lehentasunezko beste helburuetako bat euskal kulturaren ikusgarritasuna eta proiekzioa handitzea izango da. Kultura-informaziorako eta -zabalkunderako tresnak indartuko dira, eta euskal gizarteari zein nazioarteko komunitateari zuzendutako kultura-eskaintza sendotzeko lanean jarraituko da. Testuinguru horretan, euskal sortzaile, profesional eta kultura-ekoizpenen nazioartekotzea bultzatuko da, baita nazioarteko azoka eta guneetan duten presentzia ere, Etxepare Institutuarekin lankidetzan.

Era berean, 2027ra begira eta 2030era arteko horizontearekin, Nouvelle-Aquitaineko Pirinio Atlantikoetako Zentro Koreografiko Nazionalarekin, Ballet Biarritzekin, sinatutako mugaz gaindiko lankidetza-proiektua garatuko da, sorkuntza koreografikoaren, kultura-ondarearen eta nazioarteko irekieraren esparruetan lankidetza indartzeko. Ekimen horri esker, mugaz gaindiko kultura-harremanetan sakondu eta lankidetzarako, trukerako eta kanpo-proiekziorako aukera berriak sortu ahal izango dira.

Kultura eta Sormen Industriak, halaber, Euskadiren kultura-, ekonomia- eta lurralde-garapenerako esparru estrategikoa dira. Euskadi Sortzailea-RIS3ren bidez haien gobernantza-ereduan sakonduko da, eta Basque District of Culture and Creativity (BDCC) garatzen jarraituko da sektoreko enpresa eta profesionalei laguntzeko eta haiei akonpainamendua emateko tresna gisa. Kultura- eta sormen-ekosistemaren enpresa- eta gaitasun digitalak indartuko dira, eta berrikuntza, I+G+b, nazioarteko proiektuetan parte hartzea eta kudeaketa-, komunikazio- eta ekoizpen-prozesuen eraldaketa digitala bultzatuko dira.

KULTURA ONDAREA: 2026an, kultura-ondareak toki nagusia izaten jarraitu du kultura-politikan, kontserbazio hutsean oinarritutako ikuspegitik ondarea, identitatea, lurralde-garapena eta etorkizuna uztartzen dituen ikuspegi baterantz aurrera eginez. Esparru horretan, bereziki industria-ondarearekin lotutako proiektuak bultzatu dira, hala nola Sestaoko 1. Labe Garaia, Orkonera-Lutxana eta Albaola, bai eta Eibarko Armagintzaren Museoaren garapena ere. Jarduera horien helburua memoria kolektiboaren elementu esanguratsuak kontserbatzea da, eta, aldi berean, lurraldeentzat aukera berriak sortzea eta haien balioa etorkizunera proiektatzea.

Digitalizazioa ere zeharkako lan-ildo garrantzitsua izan da 2026an. Ondare Digitalaren Laborategia sortzeak, kultura digitala indartzeak eta eLiburutegia modernizatzeak aukera eman dute kultura-sistema sarbide-, kontserbazio- eta zabalkunde-modu berrietara egokitzeko bidean aurrera egiteko. Aurrerapen horietan oinarrituta, 2027rako aurreikusitako jarduketek euskal kultura-ondarearen babesean, balioan jartzean, digitalizazioan eta zabalkundean sakonduko dute.

Junto con el apoyo a la creación y producción, se reforzarán los sistemas públicos de difusión de la cultura y las políticas de públicos. Se continuará fortaleciendo la relación entre las artes escénicas y la Red Vasca de Teatros SAREA, así como el apoyo a festivales, circuitos, ferias y otros proyectos culturales con incidencia en Euskadi. Se impulsarán igualmente proyectos dirigidos a crear, fidelizar e incrementar públicos y a fomentar los hábitos culturales, con el objetivo de acercar la oferta cultural a toda la sociedad.

Otro de los objetivos prioritarios será incrementar la visibilidad y proyección de la cultura vasca. Se reforzarán los instrumentos de información y difusión cultural y se continuará trabajando para consolidar una oferta cultural dirigida tanto a la sociedad vasca como a la comunidad internacional. En este contexto, se impulsará la internacionalización de las personas creadoras, profesionales y producciones culturales vascas, así como su presencia en ferias y espacios internacionales, en colaboración con el Instituto Etxepare.

Asimismo, de cara a 2027 y con horizonte 2030, se desarrollará el proyecto de cooperación transfronteriza suscrito con el Centro Coreográfico Nacional de Nouvelle-Aquitaine en Pyrénées-Atlantiques, Ballet Biarritz, orientado a reforzar la colaboración en los ámbitos de la creación coreográfica, el patrimonio cultural y la apertura internacional. Esta iniciativa permitirá profundizar en las relaciones culturales transfronterizas y generar nuevas oportunidades de colaboración, intercambio y proyección exterior.

Las Industrias Culturales y Creativas constituyen, asimismo, un ámbito estratégico para el desarrollo cultural, económico y territorial de Euskadi. Se profundizará en su modelo de gobernanza a través de Euskadi Sortzailea-RIS3 y se continuará desarrollando el Basque District of Culture and Creativity (BDCC) como instrumento de apoyo y acompañamiento a las empresas y profesionales del sector. Se reforzarán las capacidades empresariales y digitales del ecosistema cultural y creativo y se impulsarán la innovación, la I+D+i, la participación en proyectos internacionales y la transformación digital de los procesos de gestión, comunicación y producción cultural.

PATRIMONIO CULTURAL: Durante 2026, el patrimonio cultural ha continuado ocupando un lugar central en la política cultural, avanzando desde una concepción exclusivamente conservacionista hacia un enfoque que integra patrimonio, identidad, desarrollo territorial y futuro. En este marco se han impulsado proyectos vinculados especialmente al patrimonio industrial, como el Alto Horno número 1 de Sestao, Orkonera-Lutxana y Albaola, así como el desarrollo del Museo de la Industria Armera de Eibar. Estas actuaciones buscan conservar elementos significativos de la memoria colectiva y, al mismo tiempo, generar nuevas oportunidades para los territorios y proyectar su valor hacia el futuro.

La digitalización ha constituido asimismo una línea transversal de trabajo durante 2026. La creación del Laboratorio de Patrimonio Digital, el refuerzo de la cultura digital y la modernización de eLiburutegia han permitido avanzar en la adaptación del sistema cultural a nuevas formas de acceso, conservación y difusión. Sobre estos avances, las actuaciones previstas para 2027 profundizarán en la protección, puesta en valor, digitalización y difusión del patrimonio cultural vasco.

Kultura Ondarearen ikuspegitik, jarduerak sei esparru nagusiren inguruan egituratuko dira: Euskal Kultura Ondarea babestea, balioan jartzea eta zabaltzea; Euskadiko Museoen Sistema garatzea; Dokumentu Ondarea kudeatzea eta Euskadiko Artxiboen Sistema garatzea; Lege Gordailua eta Euskadiko Liburutegien Sistema garatzea; kultura-ondarea digitalizatzea eta Euskariana Euskal Kulturaren Atari Digital gisa sustatzea; eta, azkenik, aholkularitza juridikoa eta jabetza intelektualaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari transferitutako zerbitzuak kudeatzea. Euskal ondarearen digitalizazioa eta zabalkundea jarduera horien ardatz nagusi eta zeharkakoa izango dira.

Euskal Kultura Ondarea babesteari dagokionez, 6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa, erregelamendu bidez garatzen jarraituko da, bai eta deklarazioak egokitzen, inbentarioak, katalogoak eta erregistroak eguneratzen eta babes juridikorako tresnak hobetzen ere. Ondarea babestera bideratutako ikerketa aplikatua sustatzen jarraituko da, eta arreta berezia eskainiko zaie kultura-ondare immaterialari, industria-ondareari eta itsas ondareari. Era berean, Donejakue Bidearen eta Ignaziotar Bidearen kudeaketa, babesa eta dinamizazioa garatzen jarraituko da.

Ondarea balioan jartzeak eta sozializatzeak lehentasuna izaten jarraituko du. Euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunak babestu eta balioestera bideratutako proiektuak lagunduko dira, eta erreferentziazko erakunde eta entitateekin lankidetzan jarraituko da. Industria-ondarearen esparruan, bereziki Orkonera-Lutxanan lanean jarraituko da, euskal industria-ondarearen erreferentziazko gune gisa duen eginkizuna sendotzeko eta inguruko zein Euskadi osoko beste ondare-baliabide batzuekin lotura sustatzeko.

Museoen esparruan, Euskadiko erreferentziazko museoei ematen zaien babesa mantenduko da eta Euskadiko Museoen Sistema garatzen jarraituko da, museo eta bilduma berriak sisteman sartzea, haien funtsen digitalizazioa eta irisgarritasuna eta eduki berrien sorrera sustatuz. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko museo eta bildumen arteko lankidetza sustatuko da interes komuneko esparruetan.

Kultura-ondarearen digitalizazioak protagonismo berezia izango du 2027an. Kultura Ondarea Digitalizatzeko Laborategi Esperimentala bultzatuko da Teknikerrekin lankidetzan, Europako proiektuetan parte hartuz eta esparru horretan erreferentziazko gune bihurtzeko bokazioarekin. Jarduera hori zeharka garatuko da museo, artxibo eta ondare digitalaren esparruetan, eta euskal kultura-ondarearen kontserbazioan, ezagutzan eta zabalkundean aurrera egiten lagunduko du.

Dokumentu-ondareari eta artxiboei dagokienez, artxibo historiko, publiko eta pribatuetako funtsak babesten, berreskuratzen, antolatzen eta digitalizatzen jarraituko da, horien kontserbazioa eta zabalkundea errazteko azken helburuarekin. Era berean, Artxiboen Sistemaren ataria eta Euskadiko Artxibo Historikoa garatzen jarraituko da, eta Euskadiko Artxibo Historikoaren hezkuntza- eta kultura-zabalkundeko alderdia garatzen jarraituko da.

Desde la perspectiva del Patrimonio Cultural, las actuaciones se estructurarán en torno a seis grandes ámbitos: la protección, puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco; el desarrollo del Sistema Vasco de Museos; la gestión del Patrimonio Documental y el desarrollo del Sistema de Archivos de Euskadi; el desarrollo del Depósito Legal y del Sistema Vasco de Bibliotecas; la digitalización del patrimonio cultural y el impulso de Euskariana como Portal Digital de la Cultura Vasca; y, finalmente, el asesoramiento jurídico y la gestión de los servicios transferidos a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de propiedad intelectual. La digitalización y difusión del patrimonio vasco constituirán un eje central y transversal de estas actuaciones.

En materia de protección del Patrimonio Cultural Vasco, se continuará avanzando en el desarrollo reglamentario de la Ley 6/2019, de Patrimonio Cultural Vasco, así como en la adecuación de las declaraciones, la actualización de inventarios, catálogos y registros y la mejora de los instrumentos de protección jurídica. Se continuará impulsando la investigación aplicada a la protección del patrimonio y se prestará especial atención al patrimonio cultural inmaterial, al patrimonio industrial y al patrimonio marítimo. Asimismo, se proseguirá con la gestión, protección y dinamización del Camino de Santiago y del Camino Ignaciano.

La puesta en valor y socialización del patrimonio continuará siendo una prioridad. Se apoyarán proyectos dirigidos a la protección y valorización de los bienes que integran el patrimonio cultural vasco y se mantendrá la colaboración con instituciones y entidades de referencia. En el ámbito del patrimonio industrial, se continuará trabajando especialmente en Orkonera-Lutxana, con el objetivo de consolidar su función como espacio de referencia del patrimonio industrial vasco y favorecer su conexión con otros recursos patrimoniales del entorno y del conjunto de Euskadi.

En el ámbito de los museos, se mantendrá el apoyo a los museos de referencia de Euskadi y se continuará desarrollando el Sistema Vasco de Museos, impulsando la incorporación de nuevos museos y colecciones, la digitalización y accesibilidad de sus fondos y la creación de nuevos contenidos. Se fomentará asimismo la cooperación entre el Gobierno Vasco y los museos y colecciones de Euskadi en ámbitos de interés común.

La digitalización del patrimonio cultural tendrá un especial protagonismo en 2027. Se impulsará el Laboratorio Experimental de Digitalización del Patrimonio Cultural en colaboración con Tekniker, con participación en proyectos europeos y vocación de convertirse en un espacio de referencia en este ámbito. Esta actuación se desarrollará de forma transversal en los ámbitos de museos, archivos y patrimonio digital y contribuirá a avanzar en la preservación, conocimiento y difusión del patrimonio cultural vasco.

En relación con el patrimonio documental y los archivos, se continuará trabajando en la protección, recuperación, organización y digitalización de fondos de archivos históricos, públicos y privados, con el objetivo último de facilitar su conservación y difusión. Se avanzará asimismo en el desarrollo del portal del Sistema de Archivos y del Archivo Histórico de Euskadi y se continuará desarrollando la vertiente educativa y de difusión cultural del Archivo Histórico de Euskadi.

Liburutegien eta irakurketa publikoaren arloan, eLiburutegia sustatzen eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea sendotzen jarraituko da. Informazioa kudeatzeko eta eskuratzeko plataforma eta tresna informatikoak eguneratuko dira, katalogo bibliografikoa mantendu eta garatuko da, eta udal-liburutegiei laguntzen jarraituko da, bai funtsak eta ekipamendua eskuratzeko, bai irakurketa sustatzeko proiektuak garatzeko.

Azkenik, Euskariana-Euskadiko Liburutegi Digitala euskal kultura-ondarea eskuratzeko gordailu eta atari gisa sendotzen jarraituko da. Pertsonek, erakundeek eta entitateek kudeatutako baliabide berriak gehituko dira, funtsen digitalizazioa eta kontserbazioa bultzatuko dira eta Internet bidezko zabalkundea eta irisgarritasuna indartuko dira. Era berean, Euskal Hemeroteka Digitala handitzen jarraituko da, baita erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan ere, kultura-ondarea digitalizatzeko politika partekatu baterantz aurrera egiteko.

Politika horiek guztiek zeharka txertatuko dituzte emakumeen eta gizonen berdintasuna eta euskararen erabileraren normalizazioa, bai kultura-sorkuntza, -ekoizpen eta -zabalkundeko politiketan, bai euskal kultura-ondarea babestu, kudeatu, digitalizatu eta herritarren eskura jartzeko jardueretan.

EUSKARA: JAUZIA GARA, EUSKARAREN ERABILERA SOZIALEAN JAUZI KUALITATIBOA

Eusko Jaurlaritzaren XIII. Legegintzaldiko hizkuntza-politikaren helburua da gero eta orekatuagoa den gizarte elebidun baterantz aurrera egitea, herritar eleaniztunez osatutako gizartea izanik, euskararen erabileran jauzi kualitatiboa eginez eta euskarari estatus emozional berri bat emanez. Horretarako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak adostasun politiko eta sozial ahalik eta zabalena bilatzen jarraituko du, euskararen aitortza soziala eta herritarrek euskara biziberritzeko prozesuarekiko duten atxikimendua sustatuz.

XIII. Legegintzaldirako 2024-2028 Gobernu Programak hiru konpromiso nagusi ezartzen ditu hizkuntza-politikaren arloan: euskararen ezagutza handitzea eta erabilera eremu guztietan sustatzea; hizkuntza-eskubideen bermean eta hizkuntza-bizikidetza normalizatuan aurrera egitea; eta euskara eremu berrietara eta sortzen ari diren eremuetara hedatzea ahalbidetuko duten estrategiak eta prozesuak bultzatzea. Konpromiso horiek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2027ko jardun-esparrua osatuko dute.

2026an hizkuntza-politikaren orientazio estrategiko berria sendotu da: euskararen ezagutzara bideratutako politikak mantendu dira, baina erabilera soziala gero eta argiago kokatu da ekintza publikoaren erdigunean. JAUZIA GARA etapa berri honen funtsezko esparrua da, eta elkarren osagarri diren hiru bide egituratzen ditu: politika publikoak indartzea; gizarte antolatuarekin lankidetzan euskararen erabilerarako baldintzak sortzea; eta herritarrek hizkuntzarekin duten lotura positiboa eta emozionala indartzea.

En materia de bibliotecas y lectura pública, se continuará impulsando eLiburutegia y consolidando la Red de Lectura Pública de Euskadi. Se actualizarán las plataformas y herramientas informáticas de gestión y acceso a la información, se mantendrá y desarrollará el catálogo bibliográfico y se continuará apoyando a las bibliotecas municipales tanto en la adquisición de fondos y equipamiento como en el desarrollo de proyectos de fomento de la lectura.

Por último, Euskariana-Biblioteca Digital de Euskadi continuará consolidándose como repositorio y portal de acceso al patrimonio cultural vasco. Se incorporarán nuevos recursos gestionados por personas, instituciones y entidades, se impulsará la digitalización y preservación de fondos y se reforzará su difusión y accesibilidad a través de Internet. Asimismo, se continuará ampliando la Hemeroteca Digital Vasca y la cooperación con instituciones públicas y privadas para avanzar hacia una política compartida de digitalización del patrimonio cultural.

Todas estas políticas incorporarán de manera transversal la igualdad de mujeres y hombres y la normalización del uso del euskera, tanto en las políticas de creación, producción y difusión cultural como en la protección, gestión, digitalización y puesta a disposición de la ciudadanía del patrimonio cultural vasco.

EUSKERA: JAUZIA GARA, UN SALTO CUALITATIVO EN EL USO SOCIAL DEL EUSKERA

La política lingüística del Gobierno Vasco para la XIII Legislatura tiene como objetivo avanzar hacia una sociedad bilingüe cada vez más equilibrada, integrada por una ciudadanía plurilingüe, dando un salto cualitativo en el uso del euskera y dotándolo de un nuevo estatus emocional. Para ello, la Viceconsejería de Política Lingüística continuará trabajando desde la búsqueda del más amplio consenso político y social, favoreciendo el reconocimiento social del euskera y la adhesión de la ciudadanía a su proceso de revitalización.

El Programa de Gobierno 2024-2028 para la XIII Legislatura establece tres grandes compromisos en materia de política lingüística: aumentar el conocimiento del euskera y fomentar su uso en todos los entornos; avanzar en la garantía de los derechos lingüísticos y hacia una convivencia lingüística normalizada; e impulsar estrategias y procesos que permitan extender el euskera a ámbitos emergentes y nuevos. Estos compromisos constituirán el marco de actuación de la Viceconsejería de Política Lingüística durante el ejercicio 2027.

2026an hizkuntza-politikaren orientazio estrategiko berria sendotu da: euskararen ezagutzara bideratutako politikak mantendu dira, baina erabilera soziala gero eta argiago kokatu da ekintza publikoaren erdigunean. JAUZIA GARA etapa berri honen funtsezko esparrua da, eta elkarren osagarri diren hiru bide egituratzen ditu: politika publikoak indartzea; gizarte antolatuarekin lankidetzan euskararen erabilerarako baldintzak sortzea; eta herritarrek hizkuntzarekin duten lotura positiboa eta emozionala indartzea.

Testuinguru horretan, 2026an hizkuntzaren inguruko eztabaidak presentzia handiagoa hartu du gizartean, eta horrek areagotu egin du adostasun zabalak eraikitzeko, elkarrizketa sustatzeko eta euskararen inguruko gizarte-aliantzak indartzeko beharra. Euskararen Ahotsak entzute-prozesuak aukera eman du euskararekiko emozioak, iritziak eta harreman-moduak modu sistematikoan jasotzeko, adostasun-eremuak identifikatzeko eta datozen urteetako hizkuntza-politikak orientatzeko ezagutza sortzeko.

JAUZIA GARA: ADOSTASUNETIK EUSKARAREN ERABILERA SOZIALERA 2026an egindako aurrerapenak oinarri dira 2027an JAUZIA GARAren hedapenean sakontzeko, euskararen erabilera sozialean jauzi kualitatiboa bultzatzeko esparru gisa. Haren garapenaren bidez, helburu hori sozializazio-eremuetara eta eguneroko bizitzako esparruetara eraman nahi da, erakundeen, euskararen sektorearen, erakunde pribatuen eta herritarren arteko lankidetza indartuz eta euskara erabiltzeko baldintza eta aukera berriak sortuz.

Erakundeen eta lurraldeen arteko lankidetzaren esparruan, Euskararen Jauzia garatuko da administrazio publikoekin lankidetzan eta Iparraldearekiko harremanean. Ildo horri esker, lankidetza indartu, euskararen erabilera sustatzeko estrategia partekatuetan aurrera egin eta euskara biziberritzearen inguruko erakunde- eta gizarte-aliantzak zabaldu ahal izango dira.

Migratzaileak euskarara hurbiltzea ere JAUZIA GARAren jardun-ildoetako bat da. 2027an, migratzaileak euskarara hurbiltzeko eta hizkuntzaren erabilera-eremuetan parte har dezaten errazteko ekimenak jarriko dira abian. Esparru horretan garatuko da ATE BERRIAK, pertsona berrien etorrera euskararen normalizaziorako aukera bihurtzera bideratutako proiektua, hizkuntza-harrerako, prestakuntzako, murgiltzeko, integrazioko eta gizarte-kohesioko estrategien bidez.

1. Euskararen ezagutza areagotzeko bidean jarraitzea.

2. Euskararen erabilera areagotzeko bidean jarraitzea, bereziki, eremu hauetan: familia transmisioa eta hizkuntza sozializazioa, aisialdia eta kirola, ingurune digitala eta hizkuntza teknologiak, hedabideak, EAEko sektore publikoa, eremu sozioekonomiko pribatua, gizarte aktibazioa.

3. Herritarren hizkuntza eskubideak babesten jarraitzea.

4. Erakunde arteko lankidetza indartzen jarraitzea.

5. Zeharkakoak diren ikerketa askotarikoak garatu eta gauzatzea (Euskararen Adierazle Sistema, eta arlokako ikerketak, etab.).

6. Desarrollar y cuando sea oportuno crear prácticas que contribuyan a la promoción y revitalización del euskera (AROA, marco estratégico para la revitalización del euskera y el empoderamiento de las personas vascohablantes, Agenda Estratégica del Euskera, informes de las comisiones del Consejo Asesor del Euskera, etc.).

En este contexto, durante 2026 el debate en torno a la lengua ha adquirido una mayor presencia social, reforzando la necesidad de construir consensos amplios, favorecer el diálogo y fortalecer las alianzas sociales en torno al euskera. El proceso de escucha Euskararen Ahotsak ha permitido recoger de manera sistemática emociones, opiniones y formas de relación con el euskera, identificar espacios de consenso y generar conocimiento para orientar las políticas lingüísticas de los próximos años.

JAUZIA GARA: DEL CONSENSO AL USO SOCIAL DEL EUSKERA
Los avances realizados en 2026 constituyen la base para profundizar durante 2027 en el despliegue de JAUZIA GARA, concebido como el marco para impulsar un salto cualitativo en el uso social del euskera. Su desarrollo buscará trasladar este objetivo a los distintos espacios de socialización y de la vida cotidiana, reforzando la colaboración entre las instituciones, el sector del euskera, las entidades privadas y la ciudadanía y generando nuevas condiciones y oportunidades para utilizar la lengua.

En el ámbito de la cooperación institucional y territorial, se desarrollará Euskararen Jauzia en colaboración con las administraciones públicas y en relación con Iparralde. Esta línea permitirá reforzar la cooperación y avanzar en estrategias compartidas para favorecer el uso del euskera, ampliando las alianzas institucionales y sociales en torno a su revitalización.

La incorporación de la población migrante constituye asimismo una de las líneas de actuación de JAUZIA GARA. Durante 2027 se pondrán en marcha iniciativas dirigidas a acercar el euskera a las personas migrantes y a facilitar su incorporación a los espacios de uso de la lengua. En este marco se desarrollará ATE BERRIAK, orientado a convertir la llegada de nuevas personas en una oportunidad para la normalización del euskera, mediante estrategias de acogida lingüística, formación, inmersión, integración y cohesión social.

1. Seguir avanzando hacia un mayor conocimiento del euskera.

2. Seguir avanzando en el incremento del uso del euskera, especialmente en los siguientes ámbitos: transmisión familiar y socialización lingüística, ocio y deporte, entorno digital y tecnologías lingüísticas, medios de comunicación, sector público de la CAE, ámbito socioeconómico privado, activación social.

3. Seguir protegiendo los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

4. Seguir reforzando la cooperación interinstitucional.

5. Llevar a cabo investigaciones diversas de carácter transversal (Sistema de Indicadores del Euskera, e investigaciones sectoriales, etc.).

6. Euskara sustatzeko eta biziberritzeko lagungarri izango diren jardunbideak garatzea eta dagokionean, sortzea (AROA, euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa, Euskararen Agenda Estrategikoa, Euskararen Aholku Batzordearen batzordeetako txostenak, etab.).

Lehentasunezko beste esparruetako bat gazteen aisialdia izango da, hizkuntza-sozializazioko prozesuetan eta belaunaldi berrien erabilera-ohituren sorreran duen eragin bereziagatik. 2027an formula berriak bultzatuko dira eremu horietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko, eta udalen sare pilotu bat aktibatuko da gazteen aisialdian euskararen erabileraren inguruko gobernantza-eredu berriak garatzeko. Aldi berean, 2025-2028 Euskararen Erabilera Kirolean Sustatzeko Plana garatzen jarraituko da, eta 2026an Euskadiko erreferentziazko kirol-klubetako hainbat prozesutan euskara txertatzeko garatutako metodologiak hedatuko dira, toki-administrazioekin lankidetzan.

Otro de los ámbitos prioritarios será el ocio juvenil, por su especial incidencia en los procesos de socialización lingüística y en la creación de hábitos de uso entre las nuevas generaciones. En 2027 se impulsarán nuevas fórmulas para incrementar la presencia y utilización del euskera en estos espacios y se activará una red piloto de ayuntamientos orientada a desarrollar nuevos modelos de gobernanza en torno al uso del euskera en el ocio juvenil. En paralelo, se continuará desarrollando el Plan de Fomento del Uso del Euskera en el Deporte 2025-2028 y se extenderán, en colaboración con las administraciones locales, las metodologías desarrolladas durante 2026 para incorporar el euskera en diferentes procesos dentro de clubes deportivos de referencia en Euskadi.

Lan- eta enpresa-mundua ere eremu estrategikoa da euskararen ezagutza erabiltzeko aukera handiago bihur dadin. 2026an LANERA eredua entzuteko, diagnostikatzeko eta eraikitzeko lana egin da, beharrak eta aukerak identifikatuz eta haren oinarri instituzionalak, sektorialak eta lurraldekoak ezarriz. 2027an, LANERA hedapen- eta zabalkunde-fasean sartuko da, lan-eremuan euskararen presentzia eta erabilera pixkanaka handitzeko lurralde- eta sektore-programak bultzatuz. Jarduera hori 2026-2029 Euskara Normalizatzeko Planaren esparruan garatuko da, eta LanHitz-en bidez enpresetako euskara-planei ematen zaien laguntzarekin eta INDEUS Euskal Industria Plataformaren sustapenarekin osatuko da.

El mundo laboral y empresarial constituye otro espacio estratégico para conseguir que el conocimiento del euskera se traduzca en mayores oportunidades de uso. Durante 2026 se ha trabajado en la escucha, diagnóstico y construcción del modelo LANERA, identificando necesidades y oportunidades y sentando sus bases institucionales, sectoriales y territoriales. En 2027, LANERA entrará en una fase de despliegue y expansión, impulsando programas territoriales y sectoriales para incrementar progresivamente la presencia y el uso del euskera en el ámbito laboral. Esta actuación se desarrollará en el marco del Plan de Normalización del Euskera 2026-2029 y se complementará con el apoyo a los planes de euskera en las empresas mediante LanHitz y con el impulso de la Plataforma Vasca de Industria INDEUS.

Beste hizkuntza-komunitate batzuekiko lankidetzak, halaber, esperientziak partekatzeko eta biziberritze-prozesuen inguruan aliantza berriak sortzeko aukera emango du. PLAZARA proiektuaren bidez, bereziki indartuko da hizkuntza propioak dituzten eta biziberritze-prozesuetan murgilduta dauden komunitate frankofonoekiko harremana. Jarduera hori lankidetza-estrategia zabalago baten barruan kokatzen da, Nafarroako Gobernuarekin eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin, hizkuntza propioak dituzten beste komunitate batzuekin eta Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD) bezalako Europako sareekin harremanak barne hartzen dituena, baita 2026an hizkuntza gutxituen munduko federazio bat sortzeko emandako urratsak ere.

La cooperación con otras comunidades lingüísticas permitirá, asimismo, compartir experiencias y generar nuevas alianzas en torno a los procesos de revitalización. A través del proyecto PLAZARA, se reforzará especialmente la relación con comunidades francófonas con lenguas propias inmersas en procesos de revitalización. Esta actuación se inscribe en una estrategia más amplia de cooperación que incluye la relación con el Gobierno de Navarra y Euskararen Erakunde Publikoa de Iparralde, con otras comunidades con lenguas propias y con redes europeas como la Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD), así como los pasos dados durante 2026 para la creación de una Federación mundial de lenguas minoritarias.

2027an, JAUZIA GARAk topaketarako, hausnarketarako eta nazioarteko proiekziorako dimentsioa ere izango du, III. Munduko Euskara Kongresua antolatuz. Kongresuak euskararen orainari eta etorkizunari eta hizkuntza-biziberritzeko prozesuei buruzko esperientziak, ezagutza eta ikuspegiak partekatzeko aukera emango du.

En 2027, JAUZIA GARA tendrá también una dimensión de encuentro, reflexión y proyección internacional mediante la organización del III. Munduko Euskara Kongresua, que permitirá compartir experiencias, conocimiento y perspectivas en torno al presente y futuro del euskera y a los procesos de revitalización lingüística.

Era berean, Eusko Ikaskuntzarekiko lankidetza indartuko da, JAUZIA GARAri lotutako proiektu estrategikoen sozializazioa, lankidetza eta koordinazioa sustatzeko. Euskararen Aholku Batzordeak ere zeregin garrantzitsua izaten jarraituko du hizkuntza-politikaren inguruko parte-hartze, hausnarketa eta adostasunak eraikitzeko gune gisa.

Asimismo, se reforzará la colaboración con Eusko Ikaskuntza para favorecer la socialización, la cooperación y la coordinación de los proyectos estratégicos vinculados a JAUZIA GARA. El Consejo Asesor del Euskera continuará desempeñando igualmente un papel relevante como espacio de participación, reflexión y construcción de consensos en torno a la política lingüística.

Horrela, JAUZIA GARAk 2027an elkarren artean lotutako jarduera-multzo bat egituratuko du, helburu berera bideratuta: euskararen erabilera sozialerako espazio, baldintza eta aukera gehiago sortzea, eta, aldi berean, herritarren atxikimendua, erakundeen eta gizartearen arteko lankidetza eta hizkuntza-biziberritzeko prozesuetan murgilduta dauden beste komunitate batzuekiko harremana indartzea.

De este modo, JAUZIA GARA articulará durante 2027 un conjunto de actuaciones conectadas entre sí y orientadas a un mismo objetivo: generar más espacios, condiciones y oportunidades para el uso social del euskera, reforzando al mismo tiempo la adhesión de la ciudadanía, la cooperación institucional y social y la relación con otras comunidades inmersas en procesos de revitalización lingüística.

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA IKASKUNTZA Erabilera soziala bultzatzearekin batera, euskararen ezagutza etengabe sustatzea funtsezkoa izango da. 2026an urrats garrantzitsuak egin dira euskalduntze-prozesuak herritarren beharretara egokitzeko eta errazteko, Euskara Bonua diseinatu eta ezarriz, EUDELekin udal-euskaltegien urte anitzeko finantzaketan aurrera egiteko akordioa lortuz eta HABEren bidez egiaztatze asimetrikoak eta partzialak ezarriz. Azken horiek aukera ematen dute egiaztapena ahozko eta idatzizko gaitasun desberdinetara egokitzeko eta, era berean, desgaitasuna duten pertsonen behar espezifikoei erantzuteko. Aldi berean, ikaskuntza digitala indartu da INGURAren bidez.

Oinarri horren gainean, 2027an euskararen ezagutza handitzeko lanean jarraituko da, arreta berezia jarriz helduen euskalduntzean. Ikaskuntzara bideratutako programak eta laguntzak indartuko dira, oro har B2 mailara arteko doakotasunean aurrera eginez eta kontziliazio-beharretara egokitutako eskaintza malguagoa sustatuz, modalitate erdipresentzialen eta plataforma birtualen bidez. Era berean, euskalduntze-sistemaren finantzaketa indartuko da, migratzaileei zuzendutako programak areagotuko dira eta Euskara Bonuaren bidez ikaskuntza ekonomikoki eskuragarriago egiteko bidean aurrera egiten jarraituko da; horri esker, euskara ez dakiten pertsonek B1 mailara arte aurrera egin ahal izango dute hasierako 120 euroko ekarpen bakarra eginez. Era berean, C1 maila egiaztatzen duten 16 eta 30 urte bitarteko gazteen matrikularen doakotasuna sustatuko da.

INGURA plataformari dagokionez, 2027an B2 mailako edukiak prestatzen aurrera egingo da, eta plataforma desgaitasuna duten pertsonek erabili ahal izateko egokitze-prozesuan lanean jarraituko da.

INGURUNE DIGITALA ETA HIZKUNTZA-TEKNOLOGIAK Ingurune digitala eta hizkuntza-teknologiak jarduteko eremu estrategikoetako bat dira. 2026ko aurrerapenen artean nabarmentzekoak dira Euskadin euskaraz garatutako lehen adimen artifizialaren sozializazioa eta Euskorpora proiektuaren sendotzea, bai erakunde-mailan, bai nazioartean. Azken horren helburua da corpus linguistiko sendo bat sortzea, euskarak zerbitzu digitaletan eta ekosistema teknologiko berrian presentzia izango duela bermatzeko, enpresa, elkarte, komunikabide eta datuak sortzen dituzten beste eragile batzuekin lankidetzan.

2027an Hizkuntza Teknologien 2025-2028 Ekintza Plana, GAITU, garatuko da, eta hizkuntzari aplikatutako adimen artifizialaren ikerketa sustatzen jarraituko da, bai eta adimen artifizialean oinarritutako hizkuntza-baliabideak eta -tresnak sortzen eta herritarren eskura jartzen ere. Era berean, corpus digital behar bezain anitzak eta aberatsak sortzea bultzatuko da, adimen artifizialaren garapenetik eratorritako behar berriei erantzuteko; horrekin batera, Interneten euskarazko edukiak sortu eta zabaltzea eta euskarazko Wikipedia edo Common Voice/Gaitu Ahotsak bezalako proiektuak sustatuko dira.

CONOCIMIENTO Y APRENDIZAJE DEL EUSKERA Junto al impulso del uso social, la promoción continuada del conocimiento del euskera seguirá siendo fundamental. Durante 2026 se han dado pasos relevantes para adaptar y facilitar los procesos de euskaldunización a las necesidades de la ciudadanía, mediante el diseño e implantación del Euskara Bonua, el acuerdo con EUDEL para avanzar en una financiación plurianual de los euskaltegis municipales y la implantación por parte de HABE de las acreditaciones asimétricas y parciales. Estas últimas permiten adecuar la certificación a las diferentes competencias orales y escritas y responder, asimismo, a las necesidades específicas de las personas con discapacidad. Paralelamente, se ha reforzado el aprendizaje digital a través de INGURA.

Sobre esta base, en 2027 se continuará trabajando para incrementar el conocimiento del euskera, prestando especial atención a la euskaldunización de las personas adultas. Se intensificarán los programas y ayudas destinados al aprendizaje, avanzando en la gratuidad hasta el nivel B2 con carácter general y promoviendo una oferta más flexible y adaptada a las necesidades de conciliación mediante modalidades semipresenciales y plataformas virtuales. Se reforzará asimismo la financiación del sistema de euskaldunización, se intensificarán los programas dirigidos a las personas migrantes y se continuará avanzando para hacer económicamente más accesible el aprendizaje mediante el Euskara Bonua, que permitirá a las personas que desconocen el euskera avanzar hasta el nivel B1 mediante una única aportación inicial de 120 euros. Igualmente, se promoverá la gratuidad de la matrícula entre las personas jóvenes de 16 a 30 años que acrediten el nivel C1.

En cuanto a la plataforma INGURA, en el año 2027, se avanzará en la elaboración de contenidos del nivel B2 y se continuará trabajando en el proceso de adaptación de la plataforma para que la puedan utilizar las personas con discapacidad.

ENTORNO DIGITAL Y TECNOLOGÍAS LINGÜÍSTICAS El entorno digital y las tecnologías lingüísticas constituyen uno de los ámbitos estratégicos de actuación. Entre los avances de 2026 destacan la socialización de la primera inteligencia artificial desarrollada en euskera en Euskadi y la consolidación del proyecto Euskorpora, tanto a nivel institucional como internacional. Este último está orientado a generar un corpus lingüístico robusto que permita garantizar la presencia del euskera en los servicios digitales y en el nuevo ecosistema tecnológico, mediante la colaboración con empresas, asociaciones, medios de comunicación y otros agentes generadores de datos.

En 2027 se desarrollará el Plan de Acción 2025-2028 de Tecnologías del Lenguaje, GAITU, y se seguirá promoviendo la investigación en inteligencia artificial aplicada a la lengua, así como la generación de recursos y herramientas lingüísticas basadas en inteligencia artificial y su puesta a disposición de la ciudadanía. Se impulsará también la creación de corpus digitales suficientemente diversos y ricos para responder a las nuevas necesidades derivadas del desarrollo de la inteligencia artificial, junto con la generación y difusión de contenidos en euskera en Internet y proyectos como Wikipedia en euskera o Common Voice/Gaitu Ahotsak.

HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAN Euskal Sektore Publikoko hizkuntza-normalizazioak lehentasunezko eremuetako bat izaten jarraituko du. 2027an VII. Plangintzaldiko ebaluazioa amaituko da eta VIII. Hizkuntza Plangintzaldia diseinatzeari ekingo zaio. Sektore publikoko erakundeei laguntza eta aholkularitza ematen jarraituko zaie beren normalizazio-planak prestatu eta garatzeko eta dagokien arau-esparrua aplikatzeko, ARIGARA eta XEDERA bezalako tresnen bidez. Era berean, BIKAINen bidez hizkuntza-kudeaketaren ebaluazioa eta aitortza sustatzen jarraituko da, eta hizkuntza-eskakizunen jarraipenerako eta hizkuntza-inpaktuaren ebaluaziorako tresnak garatuko dira.

NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA EN EL SECTOR PÚBLICO La normalización lingüística en el Sector Público Vasco seguirá constituyendo otro de los ámbitos prioritarios. Durante 2027 se culminará la evaluación del VII Periodo de Planificación y se abordará el diseño del VIII Periodo de Planificación Lingüística. Se continuará acompañando y asesorando a las entidades del sector público en la elaboración y desarrollo de sus planes de normalización y en la aplicación del marco normativo correspondiente, mediante instrumentos como ARIGARA y XEDERA. Asimismo, se continuará promoviendo la evaluación y reconocimiento de la gestión lingüística mediante BIKAIN y desarrollando herramientas para el seguimiento de los perfiles lingüísticos y la evaluación del impacto lingüístico.

HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK ETA BIZIKIDETZA Hizkuntza-eskubideen bermeak eta hizkuntza-bizikidetzak erdiguneko tokia izaten jarraituko dute. Elebideren gizarte-eragina indartuko da, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzu gisa, eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin eta Arartekoarekin lankidetzan jarraituko da haren kudeaketa hobetzeko. Helburua izango da hizkuntza-eskubideen benetako erabileran aurrera egiten jarraitzea eta herritarren hizkuntza-aukerak errespetatzean oinarritutako bizikidetza sustatzea.

DERECHOS LINGÜÍSTICOS Y CONVIVENCIA La garantía de los derechos lingüísticos y la convivencia lingüística continuará ocupando una posición central. Se reforzará el impacto social de Elebide como servicio para la garantía de los derechos lingüísticos de la ciudadanía y se mantendrá la colaboración con el Observatorio de Derechos Lingüísticos Behatokia y con el Ararteko para mejorar su gestión. El objetivo será continuar avanzando en el ejercicio efectivo de los derechos lingüísticos y en una convivencia basada en el respeto a las opciones lingüísticas de la ciudadanía.

HIZKUNTZA-POLITIKAREN EZAGUTZA ETA EBALUAZIOA Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko ezagutzak zeharkako tresna izaten jarraituko du hizkuntza-politikak planifikatzeko eta ebaluatzeko. Euskararen Adierazle Sistema eta informazio- eta ikerketa soziolinguistikoko azpiegiturak garatzen jarraituko da, eta VIII. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak ustiatu eta aztertuko dira. Era berean, euskararen erabilera neurtzeko sistemak garatzen eta hizkuntza erabiltzeko espazio soziofuntzional berriak identifikatzen eta sustatzen aurrera egingo da.

CONOCIMIENTO Y EVALUACIÓN DE LA POLÍTICA LINGÜÍSTICA El conocimiento sobre la situación y evolución del euskera seguirá siendo una herramienta transversal para la planificación y evaluación de las políticas lingüísticas. Se continuará desarrollando el Sistema de Indicadores del Euskera y las infraestructuras de información e investigación sociolingüística, y se realizará la explotación y lectura de los resultados de la VIII Encuesta Sociolingüística. Asimismo, se avanzará en el desarrollo de sistemas para medir el uso del euskera y en la identificación y promoción de nuevos espacios sociofuncionales de uso de la lengua.

Hori guztia Euskararen Plan Estrategikoaren eta dagokion urteko plangintzaren bidez egituratuko da. Aldi berean, JAUZIA GARA Estrategia garatu, haren jarraipena egin eta ebaluatuko da, euskararen erabilera sozialean jauzi kualitatiboa bultzatzera bideratutako jardueren koherentzia eta koordinazioa bermatuz.

Todo ello se articulará a través del Plan Estratégico del Euskera y de su correspondiente planificación anual. En paralelo, se desarrollará, realizará el seguimiento y evaluará la Estrategia JAUZIA GARA, garantizando la coherencia y coordinación de las distintas actuaciones dirigidas a impulsar un salto cualitativo en el uso social del euskera.

Azkenik, hizkuntza-politikak emakumeen eta gizonen berdintasuna zeharka txertatzen jarraituko du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2024-2029 Berdintasunerako Plan Estrategikoarekin koordinatuta.

Finalmente, la política lingüística continuará incorporando de forma transversal la igualdad de mujeres y hombres, en coordinación con el Plan Estratégico para la Igualdad 2024-2029 del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

TERMINOLOGIA Terminologiaren arloan, 2026an talde berri bat sartu da administrazio- eta zuzenbide-esparrutik kanpoko arloetan terminologiaren garapena bultzatzeko. 2027an Euskalterm estrategia garatuko da, adituen egitura bat abian jarriz eta terminologia-baliabide eta -hiztegi berriak prestatu eta zabaltzen aurrera eginez.

TERMINOLOGÍA En materia de terminología, durante 2026 se ha incorporado un nuevo equipo para impulsar su desarrollo en ámbitos no administrativos ni jurídicos. Durante 2027 se desarrollará la estrategia de Euskalterm, poniendo en marcha una estructura de personas expertas y avanzando en la elaboración y difusión de nuevos recursos y diccionarios terminológicos.

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA: EUSKADI AKTIBOAGOA, BERDINZALEAGOA ETA PROIEKZIO HANDIAGOKOA

ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE: UNA EUSKADI MÁS ACTIVA, IGUALITARIA Y CON MAYOR PROYECCIÓN

Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearekin bat etorriz, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko politika pertsona guztiek kirola askatasunez eta borondatez egiteko duten eskubidea bermatzera bideratuko da. Kirola interes publikoko gizarte-jardueratzat hartzen da, pertsonen prestakuntzan eta garapen integralean, haien bizi-kalitatea hobetzen eta norbanakoaren zein gizartearen ongizatean laguntzen duena. Beraz, ongizate integrala esparru honetako jarduera publikoaren lehentasunezko helburuetako bat da.

Jarduera fisikoak eta kirolak, halaber, hezkuntza- eta gizarte-funtzio garrantzitsua betetzen dute. Diziplina, ahalegina, erantzukizuna eta talde-lana bezalako balioak eskuratzen laguntzen dute, nork bere burua zaintzeko ohiturak sustatzen dituzte eta integraziorako, kohesiorako eta gizartea eraldatzeko tresna dira. Aldi berean, gizarte aktiboa sustatzea funtsezkoa da jarduera fisikorik ezari eta sedentarismoari aurre egiteko, herritarren osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko eta ongizate kolektiboaren jasangarritasunari laguntzeko.

2026an aurrera egin da jarduera fisikoa eta kirola herritarren ongizatearekin estuki lotutako herri-politika publiko gisa ulertzeko bidean. Prozesu horretan, Jarduera Fisikoaren Euskal Plana eta Mugiment Ekintza Plana jarduera fisikoa, osasuna, hezkuntza, inklusioa eta berdintasuna lotzeko tresna nagusi bihurtu dira, bizitzako etapa guztietan bizimodu aktiboak sustatuz eta jarduera fisikoa egitea erraztuko duten inguruneak sortzea bultzatuz.

Gizarte- eta ongizate-dimentsio horrekin batera, 2026an aurrerapen garrantzitsuak egin dira euskal kirolaren egituraketan eta proiekzioan ere. Euskal Selekzioen Ofizialtasunerako Agendak federazioekin eta erakundeekin egituratutako lan-fase bat abiaraztea ahalbidetu du, eta horri Euskal Pilota Federazioak nazioarteko ofizialtasuna lortu izana gehitu behar zaio. Era berean, nazioarteko kirol-lehiaketak eta -ekitaldiak egiteak euskal kirolaren kanpo-presentzia indartzen lagundu du.

Aldi berean, goi-mailako kirola eta federazio-egiturak indartzen jarraitu da, Goi Mailako Euskal Zentroa eta euskal kirol-federazioen egoitza irekita, eta, aldi berean, emakumeen kirolaren eta kirol egokituaren aldeko apustuari eutsi zaio, baita berdintasuna eta gizarte-balioak kirol-politika guztietan txertatzeari ere.

2026an egindako aurrerapenak abiapuntu dira 2027an gizarte aktiboago eta osasungarriagoa, kirol-sistema sendoagoa, berdintasuna eta inklusioa eta euskal kirolaren proiekzio handiagoa uztartuko dituen eredu batean sakontzeko.

2024-2028 aldirako, Eusko Jaurlaritzaren kirol-politika lau ardatz estrategiko nagusiren inguruan egituratzen da: sektorea suspertzea eta euskal kirol-sistema etorkizuneko erronketara egokitzea; Euskadi aktiboa sustatzea; euskal kirola berdintasunean bultzatzea; eta kirola Euskadiren ikur gisa indartzea.

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea berpiztu, Euskadiko kirol-sistema ere etorkizuneko erronketarako egokituz.

De acuerdo con la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, la política en materia de actividad física y deporte se orientará a garantizar el derecho de todas las personas a la práctica deportiva de forma libre y voluntaria, entendida como una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social. El bienestar integral constituye, por tanto, uno de los objetivos prioritarios de la actuación pública en este ámbito.

La actividad física y el deporte desempeñan, asimismo, una importante función educativa y social. Contribuyen a la adquisición de valores como la disciplina, el esfuerzo, la responsabilidad y el trabajo en equipo, favorecen hábitos de autocuidado y constituyen una herramienta de integración, cohesión y transformación social. Al mismo tiempo, la promoción de una sociedad activa resulta fundamental para hacer frente a la inactividad física y el sedentarismo, mejorar la salud y la calidad de vida de la ciudadanía y contribuir a la sostenibilidad del bienestar colectivo.

Durante 2026 se ha avanzado en una concepción de la actividad física y el deporte como una política pública de país estrechamente vinculada al bienestar de la ciudadanía. En este proceso, el Plan Vasco de Actividad Física y el Plan de Acción Mugiment se han configurado como los principales instrumentos para conectar actividad física, salud, educación, inclusión e igualdad, promoviendo hábitos de vida activos a lo largo de todas las etapas vitales y favoreciendo la creación de entornos que faciliten su práctica.

Junto a esta dimensión social y de bienestar, 2026 ha supuesto también avances relevantes en la estructuración y proyección del deporte vasco. La Agenda para la Oficialidad de las Selecciones Vascas ha permitido iniciar una fase de trabajo estructurada con federaciones e instituciones, a la que se suma la consecución de la oficialidad internacional por parte de la Federación Vasca de Pelota. Asimismo, la celebración de competiciones y acontecimientos deportivos internacionales ha contribuido a reforzar la presencia exterior del deporte vasco.

En paralelo, se ha continuado fortaleciendo el deporte de alto nivel y las estructuras federativas, con la apertura del Centro Vasco de Alto Nivel y de la sede de las federaciones deportivas vascas, al tiempo que se ha mantenido la apuesta por el deporte femenino, el deporte adaptado y la incorporación de la igualdad y los valores sociales al conjunto de las políticas deportivas.

Los avances realizados en 2026 constituyen el punto de partida para profundizar durante 2027 en un modelo que combine una sociedad más activa y saludable, un sistema deportivo más sólido, la igualdad y la inclusión y una mayor proyección del deporte vasco.

Para el periodo 2024-2028, la política deportiva del Gobierno Vasco se estructura en torno a cuatro grandes ejes estratégicos: reactivar el sector y adaptar el sistema deportivo vasco a los retos de futuro; promover una Euskadi activa; impulsar el deporte vasco en igualdad; y reforzar el deporte como símbolo de Euskadi.

1. Reactivar el sector de la actividad física y el deporte, adecuando el sistema deportivo de Euskadi a los retos de futuro

2. Euskadi aktiboa sustatu. Euskal herritarren artean jarduera fisikoa eta bizi-ohitura osasuntsuak bultzatuko dira, Euskadi Europako gizarte aktiboenen artean kokatuz.

3. Euskal kirola berdintasunez. Helburua berdintasun erreala sustatzea da generoaren ikuspuntutik, dibertsitate funtzional bat duten pertsonen aukeren ikuspegitik eta hizkuntza-berdintasunari dagokionez.

4. Kirola Euskadiren ikur. Kirola eta kirol-jardunarekin lotutako balioak Euskadiren identifikazio-ezaugarria izango dira, gure herrian bertan eta Euskadi-Basque Country estrategiaren baitan.

Lehenengo ardatzaren esparruan, 2/2023 Legearen erregelamendu-garapenean eta euskal kirol-sistema arau-esparru berrira egokitzen aurrera egiten jarraituko da. Arreta berezia jarriko da federazio-sistema indartzean, haren funtzionamendua hobetzean eta gizarte-, antolaketa- eta kirol-erronka berrietara egokitzean.

Era berean, Kirolaren Euskal Eskola indartzen jarraituko da, kirolaren esparruan eginkizun teknikoak, zuzendaritzakoak eta profesionalak betetzen dituzten pertsonen prestakuntzarako eta kualifikaziorako erreferentziazko tresna gisa. Sektorearen prestakuntza eta gaitasunak hobetzea funtsezko elementua da kirol-sistema sendoagoa eta egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko prestatuagoa izateko.

Berrikuntza, digitalizazioa eta I+G+b ere lehentasunezko esparruak izango dira kirol-ekosistema modernizatzeko, haren kudeaketa hobetzeko eta beste sektore estrategiko batzuekin lankidetzan aritzeko aukera berriak sortzeko.

Bigarren ardatza Euskadi aktiboa sustatzera bideratuko da, jarduera fisikoa osasunerako, prebentziorako eta ongizaterako funtsezko tresna dela indartuz. Jarduera fisikorik ezaren eta sedentarismoaren mailak murrizteko lanean jarraituko da, eta pertsona guztiek, adina edo egoera edozein dela ere, jarduera fisikoa beren eguneroko bizitzan txertatu ahal izatea erraztuko da.

Esparru horretan, 2027an Mugiment Ekintza Plana garatzen jarraituko da, erakundeen eta komunitatearen arteko lankidetza indartuz, bizimodu aktiboa erraztuko duten inguruneak eta aukerak sortzeko. Era berean, Mugiment Txartela sustatzen jarraituko da, herritarrei kirol-instalazio eta -zerbitzuetarako sarbidea errazteko eta jarduera fisikoa egitea sustatzeko tresna gisa.

Arreta berezia eskaintzen jarraituko zaie eskola-kirolari eta unibertsitate-kirolari, txikitatik ohitura aktiboak eskuratu eta sendotzeko funtsezko esparruak baitira. Era berean, desgaitasuna duten pertsonak jarduera fisikoaren eta kirolaren ohiko jardunean integratzea sustatuko da, gero eta inklusiboagoa izango den eredu baterantz aurrera eginez.

Hirugarren ardatza euskal kirolean berdintasunean aurrera egitera bideratuko da, berdintasuna ikuspegi zabal batetik ulertuta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa eta hizkuntza-berdintasuna barne hartuta.

2. Promover una Euskadi activa. Se promocionará la actividad física y los hábitos de vida saludables entre la ciudadanía vasca, colocando a Euskadi como una de las sociedades más activas de Europa.

3. Deporte vasco en igualdad. El objetivo es promover la igualdad real desde el punto de vista del género, de las oportunidades de las personas con discapacidad y diversidad funcional y de la igualdad lingüística.

4. El deporte como símbolo de Euskadi. El deporte y los valores relacionados con la práctica deportiva serán la seña de identidad de Euskadi, en nuestro propio país y dentro de la estrategia Euskadi-Basque Country.

En el marco del primer eje, se continuará avanzando en el desarrollo reglamentario de la Ley 2/2023 y en la adaptación del sistema deportivo vasco al nuevo marco normativo. Se prestará especial atención al fortalecimiento del sistema federativo, a la mejora de su funcionamiento y a su adaptación a los nuevos retos sociales, organizativos y deportivos.

Asimismo, se continuará reforzando la Escuela Vasca del Deporte como instrumento de referencia para la formación y cualificación de las personas que desarrollan funciones técnicas, directivas y profesionales en el ámbito deportivo. La mejora de la formación y de las capacidades del sector constituye un elemento fundamental para disponer de un sistema deportivo más sólido y preparado para responder a las necesidades actuales y futuras.

La innovación, la digitalización y la I+D+i constituirán también ámbitos prioritarios para modernizar el ecosistema deportivo, mejorar su gestión y generar nuevas oportunidades de colaboración con otros sectores estratégicos.

El segundo eje se orientará a promover una Euskadi activa, reforzando la consideración de la actividad física como un instrumento esencial para la salud, la prevención y el bienestar. Se continuará trabajando para reducir los niveles de inactividad física y sedentarismo y para facilitar que todas las personas puedan incorporar la actividad física a su vida cotidiana, con independencia de su edad o condición.

En este marco, durante 2027 se continuará desarrollando el Plan de Acción Mugiment, reforzando la colaboración interinstitucional y comunitaria para generar entornos y oportunidades que favorezcan una vida activa. Asimismo, se seguirá impulsando Mugiment Txartela como herramienta para facilitar el acceso de la ciudadanía a instalaciones y servicios deportivos y favorecer la práctica de actividad física.

Se continuará prestando especial atención al deporte escolar y universitario, como espacios fundamentales para la adquisición y consolidación de hábitos activos desde edades tempranas. Del mismo modo, se promoverá la integración de las personas con discapacidad en la práctica ordinaria de actividad física y deporte, favoreciendo un modelo cada vez más inclusivo.

El tercer eje estará dirigido a avanzar hacia un deporte vasco en igualdad, entendiendo la igualdad desde una perspectiva amplia que incorpora la igualdad entre mujeres y hombres, la inclusión de las personas con discapacidad y la igualdad lingüística.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, kiroleko berdintasunerako 2024-2028 estrategia garatzen jarraituko da, bai Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan, bai Basque Teamen, emakumeek kirolaren esparru eta maila guztietan duten presentzia eta ikusgarritasuna handitzeko helburuarekin. Era berean, ZURE TALDEKOAK GARA garatzen jarraituko da, kirolaren esparruan berdintasunaren aurkako jokabideen aurrean sentsibilizazio-, prebentzio- eta erantzun-jarduerak indartuz.

Desgaitasunaren arloan, Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin eta GaituzSport Fundazioarekin lankidetzan jarraituko da, GaituzSport proiektuaren bidez, desgaitasuna duten pertsonek jarduera fisikoan eta kirolean berdintasun-baldintzetan eta aukera berberekin parte hartu ahal izango duten eredu baterantz aurrera egiteko.

Hizkuntza-berdintasuna ere jardun-eremu izango da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinatuta, jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan euskararen presentzia eta erabilera pixkanaka handitzeko helburuarekin.

Laugarren ardatzaren helburua kirola Euskadiren ikur gisa indartzea izango da, balioak, identitatea eta kultura proiektatzeko eta Euskadiren kanpo-presentziari laguntzeko duen gaitasuna baliatuz.

Esparru horretan, Basque Team Fundazioak eta Basque Team Centrek funtsezko eginkizuna betetzen jarraituko dute goi-mailako kirolari laguntzeko. Goi-mailako kirolariei ematen zaien laguntza indartuko da eta, foru-aldundiekin lankidetzan, talentua eta kirol-promesak identifikatu, babestu eta garatzeko lanean jarraituko da.

Era berean, euskal selekzioen parte-hartzea eta euskal kirolak nazioarteko lehiaketa eta ekitaldietan duen presentzia sustatzeko lanean jarraituko da, haren kanpo-proiekzioa eta Basque Country markaren posizionamenduari egiten dion ekarpena indartuz.

Arreta berezia eskainiko zaie, halaber, euskal kirol-identitatearekin eta -tradizioarekin lotutako kirol-modalitateei, hala nola arraunari, pilotari eta herri-kirolei, haien praktika, zabalkundea eta proiekzioa sustatuz.

Azkenik, dopinaren prebentzioa eta aurkako borroka indartzen jarraituko da, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren jardueraren bidez eta kontrol-, prebentzio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak garatuz. Era berean, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia Dopinaren Aurkako Mundu Agentzian integratzeko bidean aurrera egiteko lanean jarraituko da.

Azken batean, 2027an aurrera egiten jarraituko da etorkizuneko erronkei aurre egiteko sendoagoa eta prestatuagoa den kirol-sistema, gizarte aktiboago eta osasungarriagoa, kirol berdinzaleago eta inklusiboagoa eta euskal kirolaren proiekzio handiagoa eraikitzeko, 2026an bultzatutako aurrerapenei eta egiturei jarraipena eta garapena emanez.

GIZARTE HEDABIDEAK: KOMUNIKAZIO ARDURATSUA, KOORDINATUA ETA GIZARTEAREN ZERBITZURA

En materia de igualdad entre mujeres y hombres, se continuará desarrollando la estrategia 2024-2028 de igualdad en el deporte, tanto en la Dirección de Actividad Física y Deporte como en Basque Team, con el objetivo de incrementar la presencia y visibilidad de las mujeres en todos los ámbitos y niveles del deporte. Asimismo, se continuará desarrollando ZURE TALDEKOAK GARA, reforzando las actuaciones de sensibilización, prevención y respuesta frente a las conductas contrarias a la igualdad en el ámbito deportivo.

En materia de discapacidad, se continuará trabajando en colaboración con la Federación Vasca de Deporte Adaptado y la Fundación GaituzSport, a través del proyecto GaituzSport, para avanzar hacia un modelo en el que las personas con discapacidad puedan participar en la actividad física y deportiva en condiciones de igualdad y con las mismas oportunidades.

La igualdad lingüística constituirá igualmente un ámbito de actuación, en coordinación con la Viceconsejería de Política Lingüística, con el objetivo de incrementar progresivamente la presencia y el uso del euskera en el ámbito de la actividad física y el deporte.

El cuarto eje tendrá como objetivo reforzar el deporte como símbolo de Euskadi, aprovechando su capacidad para proyectar valores, identidad y cultura y contribuir a la presencia exterior de Euskadi.

En este ámbito, la Fundación Basque Team y el Basque Team Centre continuarán desempeñando un papel fundamental en el apoyo al deporte de alto nivel. Se reforzará el acompañamiento a las y los deportistas de alto nivel y se continuará trabajando, en colaboración con las diputaciones forales, en la detección, apoyo y desarrollo del talento y de las promesas deportivas.

Asimismo, se continuará trabajando para favorecer la participación de las selecciones vascas y la presencia del deporte vasco en competiciones y eventos internacionales, reforzando su proyección exterior y su contribución al posicionamiento de la marca Basque Country.

Se prestará también especial atención a las modalidades deportivas vinculadas a la identidad y tradición deportiva vasca, como el remo, la pelota y los herri kirolak, apoyando su práctica, difusión y proyección.

Finalmente, se continuará reforzando la prevención y lucha contra el dopaje, mediante la actividad de la Agencia Vasca Antidopaje y el desarrollo de actuaciones de control, prevención, formación y sensibilización. Asimismo, se continuará trabajando para avanzar en la integración de la Agencia Vasca Antidopaje en la Agencia Mundial Antidopaje.

En definitiva, durante 2027 se continuará avanzando en la construcción de un sistema deportivo más sólido y preparado para los retos de futuro, una sociedad más activa y saludable, un deporte más igualitario e inclusivo y una mayor proyección del deporte vasco, dando continuidad y desarrollo a los avances y estructuras impulsados durante 2026.

MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL: UNA COMUNICACIÓN RESPONSABLE, COORDINADA Y AL SERVICIO DE LA SOCIEDAD

Kabinete eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza Sailaren titularrari zuzeneko laguntza emateko organoa da. Zuzendaritza horri dagokio, halaber, Sailak gizarte-hedabideekin, informazio-agentziekin eta prentsa idatziarekin dituen harremanak koordinatzea, bai eta Sailaren irudiari eta kanpo-harremanei lotutako lanak egitea ere. Era berean, Zuzendaritza horren ardura da Saileko zuzendaritzen iragarki ofizialak, prentsa-oharrak eta publizitate-kanpainak kudeatzea.

2026an aurrera egin da Sailaren komunikazio-eredu koordinatua sendotzeko eta gizarte-hedabideekin lotutako politika publikoak garatzeko bidean. Ikus-entzunezko komunikazioaren esparruan, araudia eguneratzeko izapideetan eta horri lotutako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ematen dituzten pertsonen eta erakundeen erregistroa garatzeko lanetan aurrera egin da.

Sailaren komunikazio-estrategiari dagokionez, 2026an eredu zentralizatua ezarri da; horrenbestez, ekitaldi institucionalen antolaketa, komunikazio digitalaren estrategia eta publizitate-kanpainen sormenaren, ekoizpenaren eta zabalkundearen kudeaketa modu zentralizatuan egin dira.

Eredu horrek 2027an jarraipena izango du. Sailaren publizitateari dagokionez, Zuzendaritzak zentralizatuta mantenduko ditu Sailaren publizitate-aurrekontuaren kudeaketa eta koordinazioa, bai eta ekitaldi institucionalen antolaketa eta Sailaren komunikazio digitalaren estrategiaren kudeaketa ere.

Gizarte Hedabideen arloan, 2026an kazetaritza arduratsua babesteko komunikabide pribatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia jarri da abian. 2027an, eguneroko komunikabide profesionalei zuzendutako dirulaguntzen deialdiari jarraipena emango zaio. Neurri horren helburua da kazetaritza arduratsua babestea, desinformazioari aurre egitea eta alfabetatze mediatiko aurreratuaren arloko gaitasunak indartzea, hori guztia demokrazia plural, informatu eta parte-hartzailea sendotzeko tresna estrategiko gisa.

EITB

Gizarte-hedabideen esparruan 2026ko mugarri nagusietako bat izan da EITBren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko harreman-esparrua 2026-2029 aldirako ezartzen duen programa-kontratua sinatzea. Esparru berri horrek ikus-entzunezko zerbitzu publikoaren prestazioari jarraipena eta egonkortasuna ematen dizkio, eta EITBren 2027ko lehentasun eta jardueretarako erreferentzia da.

EITB euskal gizartearen zerbitzura dagoen ente publikoa da, eta kalitatezko ikus-entzunezko zerbitzu publikoa eskaintzea du eginkizun, herritarrei informazioa, kultura, hezkuntza eta entretenimendua euskaraz eta gaztelaniaz eskainiz, irratiaren, telebistaren, Interneten eta plataforma digital berrien bidez.

2027an, EITBk lanean jarraituko du zerbitzu publiko unibertsala, irisgarria, plurala, orekatua eta kalitatezkoa eskaintzeko, euskal gizartearen beharrei erantzungo diena eta parte-hartzea, berdintasuna, aniztasuna eta bizikidetza indartzen lagunduko duena.

La Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social es el órgano de apoyo directo a la persona titular del Departamento. También le corresponde a esta Dirección la coordinación de las relaciones del Departamento con los medios de comunicación social, las agencias de información y la prensa escrita, así como la realización de labores de imagen y relaciones externas del Departamento. De igual modo, es la Dirección encargada de la gestión de los anuncios oficiales, notas de prensa y campañas publicitarias de las direcciones pertenecientes al Departamento.

Durante 2026 se ha avanzado en la consolidación de un modelo coordinado de comunicación del Departamento y en el desarrollo de las políticas públicas vinculadas a los medios de comunicación social. En el ámbito de la comunicación audiovisual, se ha avanzado en la tramitación de la actualización normativa y en el desarrollo del registro de personas y entidades prestadoras de servicios de comunicación audiovisual vinculado a la misma.

En cuanto a la estrategia de comunicación del Departamento, en 2026 se ha implantado un modelo centralizado, de manera que la organización de eventos institucionales, la estrategia digital de comunicación y la gestión de la creatividad, producción y difusión de las campañas publicitarias se han gestionado de forma centralizada.

Este modelo tendrá continuidad durante 2027. En lo que a la publicidad del Departamento respecta, la Dirección mantendrá centralizada la gestión y coordinación del presupuesto de publicidad del Departamento, además de la organización de actos institucionales y la gestión de la estrategia digital de comunicación del Departamento.

En el área de Medios de Comunicación Social, durante 2026 se ha puesto en marcha la convocatoria de subvenciones para el apoyo al periodismo responsable dirigida a los medios de comunicación privados. En 2027 se dará continuidad a la convocatoria de subvenciones dirigidas a medios diarios profesionales. Esta medida tiene como finalidad apoyar el ejercicio responsable del periodismo, combatir la desinformación y fortalecer las competencias avanzadas en alfabetización mediática, todo ello como instrumento estratégico para la consolidación de una democracia plural, informada y participativa.

EITB

Otro de los principales hitos de 2026 en el ámbito de los medios de comunicación social ha sido la suscripción del contrato-programa que establece el marco de relación entre EITB y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el periodo 2026-2029. Este nuevo marco da continuidad y estabilidad a la prestación del servicio público audiovisual y constituye la referencia para las prioridades y actuaciones de EITB durante 2027.

EITB es un ente público al servicio de la sociedad vasca que tiene como misión prestar un servicio público audiovisual de calidad, ofreciendo información, cultura, educación y entretenimiento en euskera y castellano a través de la radio, la televisión, Internet y las nuevas plataformas digitales.

Durante 2027, EITB continuará trabajando para ofrecer un servicio público universal, accesible, plural, equilibrado y de calidad, que responda a las necesidades de la sociedad vasca y contribuya a fortalecer la participación, la igualdad, la diversidad y la convivencia.

Era berean, euskal kultura sustatzeko eta euskararen normalizazioa, prestigioa eta erabilera bultzatzeko erreferentziazko eragile gisa duen eginkizuna garatzen jarraituko du, haren rol eraldatzailea eta gizarte-kohesioari egiten dion ekarpena indartuz.

Helburu estrategikoen artean daude informazio-lidergoari eustea, belaunaldi berriekin konektatzea, kirolaren presentzia indartzea, Euskadiren kanpo-proiekzioari laguntzea eta euskal ikus-entzunezkoen ekosistema indartzea.

Eraldaketa teknologikoak ere erronka nagusietako bat izaten jarraituko du. EITBk bere zerbitzu eta plataforma digitalen garapenean, datuen erabilera estrategikoan eta adimen artifiziala modu arduratsuan txertatzen aurrera egingo du, baita azpiegitura teknologikoak eta ikus-entzunezkoak modernizatzen ere.

Hori guztia kudeaketa-eredu aurreratu, garden eta jasangarri batekin batera garatuko da, oreka ekonomikoa eta baliabide publikoen erabilera eraginkorra bermatzera bideratuta.

EITBren 2027ko aurrekontuak 2026-2029 programa-kontratuan ezarritako esparruari eta konpromisoei erantzuten die. Programa-kontratu hori Eusko Jaurlaritzak eta EITBk 2026ko maiatzaren 6an sinatu zuten, eta aldi horretan EITBren zerbitzu publikoko eginkizuna garatzeko erreferentziazko tresna da.

Asimismo, continuará desarrollando su función como agente de referencia para la promoción de la cultura vasca y la normalización, prestigio y uso del euskera, reforzando su papel transformador y su contribución a la cohesión social.

Entre sus objetivos estratégicos se encuentran mantener el liderazgo informativo, conectar con las nuevas generaciones, reforzar la presencia del deporte, contribuir a la proyección exterior de Euskadi y fortalecer el ecosistema audiovisual vasco.

La transformación tecnológica continuará siendo igualmente uno de los principales retos. EITB seguirá avanzando en el desarrollo de sus servicios digitales y plataformas, en el uso estratégico de los datos y en la incorporación responsable de la inteligencia artificial, así como en la modernización de sus infraestructuras tecnológicas y audiovisuales.

Todo ello se acompañará de un modelo de gestión avanzado, transparente y sostenible, orientado a garantizar el equilibrio económico y el uso eficiente de los recursos públicos.

El presupuesto de EITB para 2027 responde al marco y a los compromisos establecidos en el contrato-programa 2026-2029, suscrito entre el Gobierno Vasco y EITB el 6 de mayo de 2026, que constituye el instrumento de referencia para el desarrollo de su misión de servicio público durante este periodo.

PROGRAMA

4511 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA. EGITURA ETA LAGUNTZA

ARDURADUNA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA
ZERBITZU ZUZENDARITZA

PROGRAMA

4511 ESTRUCTURA Y APOYO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

RESPONSABLE

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL
DIRECCIÓN DE SERVICIOS

MEMORIA

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza sailaren titularrari zuzenean laguntzeko organoa da. Zuzendaritza saileko sailburuordetzak elkarren artean behar bezala koordinatzeaz arduratzen da, sailaren eta beste administrazio batzuen arteko harremanak bideratzen ditu eta sailak Arartekoarekin eta Legebiltzarrarekin duen komunikazioaren arduraduna da. Bestalde, zuzendaritza honek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzeko gaikuntza-tituluak emateko prozedurak era administratiboan gauzatzeko eta ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaileek hitzartutako baldintzetan emango dutela egiaztatzeko eskuduntza ere badu.

Zerbitzu Zuzendaritzari sailaren goi-zuzendaritza betetzea dagokio, hots, sailaren jarduerak planifikatzea, zuzentzea eta koordinatzea. Era berean, saileko zeharkako atala da eta honako helburu hauek ditu: laguntza ematea organo kudeatzaileei (gainerako zuzendaritzak) arlo ekonomikoan, juridikoan, informatikoan eta langileen atalean; euskara-plana bultzatzea eta koordinatzea; aholkularitza eta laguntza ematea genero-ikuspegia txertatzeko; eta saileko estatistika lantzea. Horretarako, zuzendaritza honen egituraketan biltzen dira: lau zerbitzu, euskara eta berdintasunerako unitateak, eta organo estatistikoa.

La Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social es el órgano de apoyo directo a la persona titular del Departamento. La Dirección vela por la adecuada coordinación entre las Viceconsejerías del Departamento, canaliza las relaciones del Departamento con otras administraciones y es la responsable de la interlocución del Departamento con el Ararteko y con el Parlamento. Por otra parte, corresponde también a esta Dirección la ejecución administrativa de los procedimientos para la concesión de títulos habilitantes para la prestación de servicios comunicación audiovisual (radio y televisión), y la verificación del cumplimiento de las condiciones esenciales del servicio por parte de las entidades prestadoras de servicios de comunicación audiovisual.

La Dirección de Servicios ejerce la alta dirección del Departamento y es a quien corresponde planificar, dirigir y coordinar las actividades del mismo. Es igualmente la sección transversal del Departamento y sus objetivos son: prestar apoyo a los órganos de gestión (resto de Direcciones) en las áreas económica, jurídica, informática y de personal; impulsar y coordinar el plan de euskera; asesorar y asistir en la incorporación de la perspectiva de género; y elaborar la estadística departamental. Para ello, la Dirección se estructura orgánicamente en cuatro servicios, las unidades de euskera e igualdad, y el órgano estadístico.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. SAILAREN TITULARRAREN KANPO HARREMANAK SENDOTZEA ETA KUDEATZEA		**1. FORTALECER Y GESTIONAR LAS RELACIONES EXTERNAS DE LA PERSONA TITULAR DEL DEPARTAMENTO**
1. Eusko Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko sailaren harremanak bideratzea.		1. Canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y el Ararteko.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
2. Herritarrak informatzea eta, horretarako dauden hedabideen bidez, haien eskaerei erantzuna ematea.		2. Informar a la ciudadanía y dar respuesta a sus demandas a través de los diferentes canales de comunicación habilitados para tal fin.
2. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO-ZERBITZUAK EMATEKO GAIKUNTZA-TITULUAK EBAZTEA		**2. RESOLVER LOS TÍTULOS HABILITANTES PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL**
1. Marko juridikoa garatzea.		1. Desarrollar el marco jurídico.
2. Gaikuntza-tituluak gauzatzea.		2. Formalizar los títulos habilitantes.
3. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ematen dituzten pertsona eta erakundeen EAEko erregistroa garatzea.		3. Desarrollar el Registro de personas y entidades prestadoras del servicio de comunicación audiovisual de la CAE.
4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren (1/2023 Legegintzako dekretuak onartutakoa) betetzea sustatzea; ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu emaileen eta hedabideen artean (bereizkeria eragiten ez duten edukiak, ordezkaritza orekatua, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua, etab.).		4. Promover el cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres entre los prestadores del servicio de comunicación audiovisual y medios (contenidos no discriminatorios, representación equilibrada, tratamiento de la violencia contra las mujeres, etc.).
3. SAILEKO ORGANO KUDEATZAILEEI LAGUNTZA EMATEA		**3. PRESTAR APOYO A LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO**
1. Arlo Ekonomikoa: sailaren aurrekontu aurreproiektua prestatzea (zuzendaritzekin elkarlanean), aurrekontu-exekuzioaren jarraipena egitea, eta gastuei eta sarrerei dagozkien kontabilitate agirien izapidetza zentralizatzea.		1. Área Económica: elabora el anteproyecto del presupuesto del Departamento (de forma coordinada con las diferentes Direcciones), realiza el seguimiento de la ejecución presupuestaria, y centraliza la tramitación de los documentos contables de gasto e ingreso.
2. Arlo Juridikoa: aholkularitza juridikoko eginkizunak betetzen ditu (hala badagokio, txosten juridikoak eginez); administrazio-bidean errekurtsoak ebaztea aztertzen eta proposatzen du; ondare-erantzukizuneko espedienteak izapidetzen ditu, bai eta izaera orokorreko arau-xedapenak eta kontratu txikitzat hartzen ez diren administrazio-kontratuak onartzeko espedienteak ere; Sailaren datu pertsonalak babesteko tratamendu-jarduerak kudeatzen ditu, arlo informatikoarekin batera; espedienteak Gobernu Idazkaritzara igortzen ditu eta izenpetutako hitzarmenak erregistratu; eta, auzietan, espedienteak dagokion organo judizialera bidaltzen direla gainbegiratzen du, eta Auzibide Zuzendaritzarekiko harremanak kudeatzen ditu.		2. Área Jurídica: realiza funciones de asesoramiento jurídico (emitiendo, si procede, informes jurídicos); analiza y propone la resolución de recursos en vía administrativa; tramita expedientes de responsabilidad patrimonial, así como expedientes para la aprobación de disposiciones normativas de carácter general y los de contratos administrativos que no tengan la consideración de contratos menores; gestiona las actividades de tratamiento de protección de datos personales del Departamento, junto con el área informática; remite expedientes a Secretaría de Gobierno y registra los convenio suscritos; y, en la función contenciosa, supervisa la remisión de los expedientes al órgano judicial que corresponda, y gestiona las relaciones con la Dirección de lo Contencioso.
3. Arlo Informatikoa: ekipo informatikoak, informazio-sistemak, web-atariak eta prozeduren digitalizazioa kudeatu eta koordinatzea, eta fitxategien segurtasuna eta kalitate-sistemak ere bai; Sailaren datu pertsonalak babesteko tratamendu-jarduerak kudeatzen ditu, arlo juridikoarekin batera.		3. Área Informática: gestiona y coordina los equipos informáticos, sistemas de información, portales web y la digitalización de los procedimientos, también la seguridad de los ficheros y los sistemas de calidad; gestiona las actividades de tratamiento de protección de datos personales del Departamento, junto con el área jurídica.
4. Langileen Atala: Saileko giza baliabideak kudeatzea eta langileak prestatzeko planak ezarri eta koordinatzea.		4. Área de Personal: gestiona los recursos humanos del Departamento y, establece y coordina los planes de formación del personal.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
4. EUSKARA-PLANA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA (HIZKUNTZA NORMALKUNTZA)		**4. IMPULSAR Y COORDINAR EL PLAN DE EUSKERA (NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA)**
1. Euskararen erabilera areagotzeko neurriak gauzatzea.		1. Implementar medidas destinadas al incremento del uso del euskera.
Herri-erakundeekin eta erakunde pribatuekin.	**10**	En las relaciones con las instituciones públicas y las instituciones privadas.
Barne-harremanetan eta jendaurreko ekitaldietan.	**10**	En las relaciones internas e intervenciones públicas.
Herritarrekiko harremanetan.	**10**	En las relaciones con la ciudadanía.
5. SAILARI AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA EMATEA GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO		**5. ASESORAR Y ASISTIR AL DEPARTAMENTO EN LA INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO**
1. Saileko jarduera administratiboan eta politika sektorialetan genero-ikuspegia txertatzen sustatzea.		1. Promover la incorporación de la perspectiva de género en la actuación administrativa del Departamento y en sus políticas sectoriales.
Sailaren legegintzaldiko berdintasun-plana.	**1**	Plan de igualdad de legislatura del Departamento.
Bilerak berdintasunerako talde teknikoekin eta politikoekin, Sailaren berdintasun planari jarraipena egiteko.	**3**	Reuniones con los grupos técnicos y políticos de igualdad para el seguimiento del plan de igualdad departamental.
Prestakuntza- edo sentsibilizazio-ekintzak.	**4**	Acciones formativas o de sensibilización.
6. SAILEKO ESTATISTIKA LANTZEA		**6. ELABORAR LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL**
1. Saileko estatistika lantzea.		1. Elaborar la estadística departamental.
Estatistika eragiketak (EAEko Estatistika Ofizialeko Programan jasotakoak).	**17**	Operaciones estadísticas (incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE).
Txosten teknikoak.	**9**	Informes técnicos.
Informazio-eskaerak estatistika institutuei.	**4**	Peticiones de información a institutos de estadística.

PROGRAMA

4512 KIROLAK

ARDURADUNA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA

PROGRAMA

4512 DEPORTES

RESPONSABLE

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE

MEMORIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko 2/2023 Legearekin bat etorriz, botere publikoek, beren eskumenen esparruan, pertsona guztiek kirola askatasunez eta borondatez egiteko duten oinarrizko eskubidea bermatzera bideratutako politika onartuko dute, interes publikoko gizarte-jarduera baita, eta pertsonen prestakuntza eta garapen integrala, bizi-kalitatea hobetzea eta norbanakoaren eta gizartearen ongizatea lortzen laguntzen baitu. Ongizate integrala lehentasunezko helburu gisa.

Jarduera fisikoa eta kirola oso lagungarriak dira gazteen ikaskuntza- eta prestakuntza-prozesuan hezteko. Jarduera fisikoa eta kirola egiten duen orok badaki diziplina eta eguneroko lana zer diren, baita taldean jokatzeko ardura lantzea ere. Gainera, nork bere burua zaintzeko ohiturak ikasten dira kirolaren bitartez. Horregatik, garrantzitsua da ekimenak eta horien koordinazioa eta jarraipena modu sinergikoan bateratzea.

Jarduera fisikoa eta kirola oso tresna egokiak dira gizartea eraldatzeko. Horien bidez, integrazioa eta komunitate bateko kide izateko aukera errazten zaie hemen jaio ez diren pertsonei edo migratzaileei, eta gure herrialdera iritsitako pertsona askori gizarteratzeko aukera bikaina ematen zaie.

Jarduera fisikoa eta kirola gure bizi-kalitatearen eta osasunaren oinarria dira, ezinbestekoak baitira eremu horietan onurak lortzeko. Egungo sozietatean eta, batez ere, ditugun abantaila teknologikoek badute alde kaltegarri bat: jarduera fisiko eza eta sedentarismoa.

Jendarte aktiboa, hau da, jarduera fisikoa egiten duen gizartea, sedentarioa ez dena, ezinbestekoa da gure ongizate mailari eusteko. Sozietate alaiagoa, emankorragoa eta osasuntsuagoa ekarriko du, eta, nola ez, jasangarriago egingo ditu gure ongizate-mailak osasun arloan dituen kostuak.

De acuerdo con la Ley 2/2023, de la actividad física y deporte del País Vasco, los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, adoptarán una política dirigida a garantizar el derecho fundamental de todas las personas a la práctica deportiva de forma libre y voluntaria en cuanto que constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar integral y social.

La actividad física y el deporte son de gran ayuda en el proceso de aprendizaje y formación de las y los jóvenes. Toda persona que haga actividad física y deporte sabe lo que representan la disciplina y el trabajo diario, así como el cultivo de la responsabilidad de actuar en grupo. Además, por medio del deporte se adquieren hábitos de autocuidado. Es por ello la importancia de aunar de forma sinérgica las diferentes iniciativas, su coordinación y seguimiento.

La actividad física y el deporte son instrumentos muy adecuados para la transformación social. Por medio de ellos se facilita la integración, la oportunidad de pertenecer a una comunidad las personas no nacidas aquí o a las personas migrantes proporcionando un excelente acceso a la integración a muchas personas llegadas a nuestro país.

La actividad física y el deporte son la base de nuestra calidad de vida y de nuestra salud, imprescindibles para conseguir beneficios en esos ámbitos. La sociedad actual y especialmente los avances tecnológicos con que cuenta tienen su vertiente perjudicial en la falta de actividad física y el sedentarismo.

Una sociedad activa, es decir, una sociedad que realiza actividad física, alejada del sedentarismo, resulta imprescindible para mantener nuestro nivel de bienestar. Ello redundará en una sociedad más feliz, productiva y saludable y, por supuesto, hará más sostenibles los costes que conlleva nuestro nivel de bienestar en el área sanitaria.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren zereginek eremu zabala hartzen dute eta hainbat konpromiso estrategikori lotuta daude. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloa eskumen partekatua izan arren, Eusko Jaurlaritzari dagozkion arloak anitz eta oso ezberdinak dira. 2024-2028 Legealdiari begira, Zuzendaritzak bere lehentasun, helburu eta ekinbideak lau ardatz nagusiren inguruan antolatu ditu. Honako hauek dira:

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea berpiztu, Euskadiko kirol-sistema ere etorkizuneko erronketarako egokituz.

Era berean, etorkizuneko erronketarako Euskadiko kirol-sistemaren antolaketa egokitu, egituratu eta hobetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko legeak, jarduera fisikoari eta kirolari buruzko legeak eta Dopinaren aurkako Legea aldatu ondoren. Horien arau-garapena izapidetzen ari gara. Etorkizuneko hamarkaden oinarriak sortzeko unea da.

2. Euskadi aktiboa sustatu. Euskal herritarren artean jarduera fisikoa eta bizi-ohitura osasuntsuak hedatzen jarraituko dugu, Euskadi Europako gizarte aktiboenen artean kokatze aldera.

Europako herrialderik aurreratuenek gero eta barneratuago dute jarduera fisikoaren garrantzia. Atzean geratu dira ikuspegi ludikoa nabarmentzen zuten garaiak, eta egun gizarte mailako lehentasuntzat hartzen da haren sustapena. Euskadin hasiak gara kontzientzia hori barneratzen eta pauso sendoak eman ditugu norabide horretan. Pandemiak agerian utzi zuen jarduera fisiko ezak herritarren osasunean sortzen dituen ondorio larriak eta gordintasunez erakutsi digu sedentarismoak eragiten duena, batik bat urteen poderioz. Ardatz honi dagokionez, Urte honetan, jarduera fisikoaren sustapenaren arloan, 2/2023 LEGEAk, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena, ezarritakoari jarraituz, «Mugiment Ekintza Planaren» jarraipena eta ekimen estrategikoen garapena.

3. Euskal kirola berdintasunez. Kirol eremuan berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzen jarraitu nahi dugu, genero-berdintasunari, dibertsitate funtzionala duten pertsonei eta hizkuntza-berdintasunari erreparatuta. Ekitatea eta aukera berdinak pertsona guztientzako.

Horretarako, hiru lerro horietan lan egingo dugu, emakumeen parte-hartzea eta ikusgarritasuna maila guztietan sustatuz, kirol inklusiboa eta egokitua babesteko neurriak garatuz eta jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako espazioetan euskararen presentzia eta erabilera indartzeko ekimenak bultzatuz.

4. Kirola Euskadiren ikur. Kirol-diplomazia, kirola nazio- eta kultura-nortasunaren elementu gisa, mundu globalizatu, aldakor eta etengabe aldatzen ari den mundu batean gertatzen da. Kirola eta kirol-jardunarekin lotutako balioak Euskadiren identifikazio-ezaugarria izango dira, gure herrian eta Euskadi-Basque Country estrategiaren baitan.

Las funciones de la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco abarcan un amplio ámbito y están vinculadas a diversos compromisos estratégicos. A pesar de la competencia compartida en materia de actividad física y deporte, las áreas que corresponden al Gobierno Vasco son diversas y muy diferentes. De cara a la Legislatura 2024-2028, la Dirección ha articulado sus prioridades, objetivos e iniciativas en torno a cuatro grandes ejes. Son los siguientes:

1. Reactivar el sector de la actividad física y el deporte, adaptando el sistema deportivo vasco a los retos del futuro.

Asimismo, con el fin de adecuar, estructurar y mejorar la organización del sistema deportivo de Euskadi para los retos de futuro, tras la aprobación de las Leyes sobre el acceso y ejercicio de las profesiones del deporte en el País Vasco; la de la actividad física y deporte y la modificación de la Ley Antidopaje. Estamos tramitando el desarrollo normativo de las mismas. Es el momento de crear los cimientos de las futuras décadas.

2. Promover una Euskadi activa. Vamos a continuar difundiendo la actividad física y los hábitos de vida saludables entre la ciudadanía vasca, situando a Euskadi entre las sociedades más activas de Europa.

Los países europeos más avanzados tienen cada vez más interiorizada la importancia de la actividad física. Atrás han quedado los tiempos en los que destacaban el enfoque lúdico y hoy se considera su promoción como una prioridad a nivel social. En Euskadi estamos empezando a interiorizar esa conciencia y hemos dado pasos firmes en esa dirección. La pandemia puso de manifiesto las graves consecuencias que produce la inactividad física en la salud de la población, mostrándonos con crudeza lo que provoca el sedentarismo, sobre todo con el paso de los años. En relación con este eje se impulsarán la Agencia Vasca de Actividad física, en este año, en el ámbito de la promoción de la actividad física, siguiendo las directrices de la LEY 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, tenemos el reto principal del Seguimiento del «Plan de Acción Mugiment» y desarrollo de iniciativas estratégicas.

3. Deporte vasco en igualdad. Queremos seguir promoviendo la igualdad real y efectiva en el ámbito deportivo, atendiendo a la igualdad de género, a las personas con diversidad funcional y la igualdad lingüística. Equidad e igualdad de oportunidades.

Para ello, trabajaremos en estas tres líneas impulsando la participación y visibilización de las mujeres en todos los niveles, desarrollando medidas de apoyo al deporte inclusivo y adaptado e impulsando iniciativas para reforzar la presencia y el uso del euskera en los espacios relacionados con la actividad física y el deporte.

4. El deporte como símbolo de Euskadi. La diplomacia deportiva, el deporte como elemento de identidad nacional y cultural son un hecho en un mundo globalizado, cambiante y en continua evolución. El deporte y los valores relacionados con la práctica deportiva serán la seña de identidad de Euskadi, en nuestro país y dentro de la estrategia Euskadi-Basque Country.

Kirola gure herriaren kultura, izaera eta nortasunean erabat errotuta dago. Euskadi kirolari handien sorterria izan da eta da, eta berauek gure enbaxadorerik onenak izan dira askotan. Kirolaren baliorik behinenak hedatu dituzte gurean, eta gure herria nazioartekotzean lagundu dute. Euskadi bere goi-mailako kirolariak babestu dituen herria izan da, eta erreferente izan nahi dugu horretan. Baina bide horri ez diogu edozelan eutsiko. Balio batzuei lotuta eutsiko diogu. Kirol legez. Fair-play-ean eta dopinaren aurrean 0 tolerantzian ere Euskadiren ikur izan daitezkeelako.

Gure kirolariak nazioarteko txapelketetan Euskadi-Basque Country izenarekin lehiatzeko ere lan egingo dugu. Ukaezina da Euskal Selekzioak Euskadi ikusarazten eta munduan proiektatzen laguntzen duela. Gure kirol-ahalmena, gauzak egiteko modua, nortasuna eta kultura erakusten ditu.

Azkenik, gure herrian sustraitu diren zenbait kirol-diziplina gure kulturaren eta nortasunaren ezaugarri bilakatu dira, kasu batzuetan gure ekarpena utziz nazioartean. Bereziki zaindu eta indartu egin nahi ditugu kirol horiek. Guk ez badugu egiten beste inork ez duelako egingo. Eta gure herriaren ezaugarri bilakatu direlako, Euskadiren ikur.

Beraz, gure aurkezpen-gutunean kirolak presentzia handia izan dezan, maila desberdinetan lan egingo dugu eta Basque Team Fundazioaren erreferentzialtasuna indartuko dugu goi-mailako kirolaren esparruan, Basque Team Zentroa eraberritu dugu eta goi-mailako kirolariei eskaintzen zaien zerbitzu-eskaintza indartuko dugu; Euskadi dopinaren aurkako borrokan erreferente bihurtuko dugu, Dopinaren aurkako Euskal Agentzia Munduko Agentzian txertatuz; euskal selekzioei kanpo-proiekzioko elementu gisa ematen zaien babesa indartuko dugu eta nazioarteko lehen mailako kirol-ekitaldiak ekarriko ditugu.

Eliteko gure kirolarien bidez, haien bultzadaren bidez, nazioartean lehiatzen diren gure selekzioen bidez, eta nazioarteko kirol ekitaldiak antolatuz, kirol jarduera handiagoa eta hobea izango dugu, bai eta nortasun eta partaidetza sentimendu handiagoa ere.

Normala da eta herrialde baten normaltasunaren barruan dago nazioartean aitortutako federazio eta selekzio ofizialak izatea, beraz, gure selekzioen ofizialtasuna lortzeko prozesuan eta Euskal Selekzioaren atxikimendua eta kontsiderazioa elikatzean urratsak ematen jarraituko dugu.

El deporte está plenamente arraigado en la cultura, carácter e identidad de nuestro pueblo. Euskadi ha sido y es la cuna de grandes deportistas que han sido muchas veces nuestras y nuestros mejores embajadores. Han difundido en nuestro país los valores más relevantes del deporte y han contribuido a su internacionalización. Euskadi ha sido un pueblo que ha apoyado a sus deportistas de alto nivel, en lo que queremos ser un referente. Pero no vamos a seguir ese camino a cualquier precio. Vamos a mantenerlo ligado a unos valores. Porque en el fair-play y en la tolerancia 0 frente al dopaje también pueden ser símbolos de Euskadi.

También trabajaremos para que nuestras y nuestros deportistas compitan bajo el nombre de Euskadi-Basque Country en campeonatos internacionales. Es innegable que Euskal Selekzioa ayuda en la visibilización, y a la proyección de Euskadi en el mundo. Muestra nuestra potencia deportiva, nuestra forma de hacer las cosas, nuestra identidad y nuestra cultura.

Por último, algunas de las disciplinas deportivas que han arraigado en nuestro país se han convertido en señas de identidad y cultura, dejando en algunos casos nuestra aportación internacional. Queremos cuidar y reforzar especialmente estos deportes. Porque si nosotros y nosotras no lo hacemos nadie más lo hará. Y porque se han convertido en seña de identidad de nuestro país, en símbolo de Euskadi.

Por tanto, para que el deporte tenga mucha presencia en nuestra carta de presentación, trabajaremos a diferentes niveles y reforzaremos la referencialidad de la Fundación Basque Team en el ámbito del deporte de alto nivel, hemos reformado el Centro Basque Team y reforzaremos la cartera de servicios que se ofrece a las y los deportistas de alto nivel; haremos de Euskadi un referente en la lucha contra el dopaje, incorporando la Agencia Vasca Antidopaje en la Agencia Mundial; reforzaremos el apoyo a las selecciones vascas como elemento de proyección exterior y atraeremos eventos deportivos de primer nivel internacional.

A través de nuestros y nuestras deportistas de élite, de su impulso, de nuestras selecciones compitiendo en el ámbito internacional y también a través de la organización de eventos deportivos internacionales inspiraremos una mayor y mejor práctica deportiva y también un mayor sentimiento de identidad y pertenencia.

Es natural y está dentro de la normalidad de un país contar con federaciones y selecciones oficiales reconocidas a nivel internacional, por tanto, seguiremos dando pasos en el proceso de consecución de la oficialidad para nuestras selecciones y en alimentar el apego y la consideración de la Euskal Selekzioa como selección propia.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. KIROL EREDUAREN INGURUKO HAUSNARKETA SUSTATZEA		**1. IMPULSAR UNA REFLEXIÓN SOBRE EL MODELO DEPORTIVO**

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. Eusko Legebiltzarrak onartutako kirol-arloko lege berriak erregelamendu bidez garatzea, etorkizunean horiek ezarritako jarduera fisikoaren eta kirolaren eredua sendotzeko.		1. Desarrollar reglamentariamente las nuevas leyes del ámbito deportivo aprobadas por el Parlamento Vasco, a fin de consolidar a futuro el modelo de actividad física y deporte establecido por las mismas.
2. Euskal federazioen urteko kirol-programak finantzatzeko dirulaguntzak.		2. Subvenciones para financiar los programas anuales deportivos de las federaciones vascas.
Dirulaguntza kopurua.	**45**	Número de subvenciones.
3. Dirulaguntza eta babesa Euskal Kirol Federazioen Batasunari, euskal federazioak berrantolatzeko eta optimizatzeko, eta euskal selekzioak sustatzeko eta kanpoan proiektatzeko.		3. Subvención y apoyo a la Unión de Federaciones Deportivas Vascas, para la reorganización y optimización de las federaciones vascas y potenciación de las selecciones vascas y su proyección en el exterior.
4. Kirolaren Euskal Eskola indartzea.		4. Potenciar la Escuela Vasca del Deporte.
5. Prestakuntza Programa landu eta martxan jartzea.		5. Elaborar y poner en marcha el Programa Formativo.
Proiektu kopurua.	**12**	Número de proyectos.
6. I+G+B proiektuak definitzea.		6. Definir proyectos de I+D+i.
Proiektu kopurua.	**3**	Número de proyectos.
7. Euskal kirol-erakundeetan eraldaketa digitaleko proiektuak sustatzea.		7. Fomentar proyectos de transformación digital en los entes deportivos vascos.
Proiektu kopurua.	**3**	Número de proyectos.
2. EUSKADI AKTIBOA SUSTATZEA		**2. PROMOVER UNA EUSKADI ACTIVA**
1. 2027ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak antolatzea.		1. Organizar los Juegos Escolares Deportivos de Euskadi 2027.
Kirolari kopurua.	**2.165**	Número de deportistas.
2. Ahalmen urritasuna duten kirolariak Eskolarteko Kirol Jokoetan integratzea.		2. Integrar a deportistas con discapacidad en los juegos deportivos escolares.
Kirolari kopurua.		Número de deportistas.
3. 2027ko Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketak antolatzea, eta unibertsitate arloko nazioarteko txapelketetan parte hartzen laguntzea.		3. Organizar los Campeonatos de Euskadi de Deporte Universitario 2027, y apoyar la participación en competiciones internacionales universitarias.
Kirolari kopurua.	**600**	Número de deportistas.
4. Mugimen Ekintza Planaren garapena: pertsona aktibo gehiago Euskadi osantsuagorako.		4. Desarrollo del Plan de Acción Mugiment: más personas activas para una Euskadi más saludable.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 LEGETIK eratorritako jarduera fisikoaren sustapenari lotutako aginduen eta GAPPAk proposatutako helburu estrategikoen eta neurrien betetze-maila, Mugiment Ekintza Planeko konpromisoak betez.		5. Nivel de cumplimiento de los mandatos ligados a la promoción de la actividad física derivados de la LEY 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco y de los objetivos estratégicos y medidas propuestas por GAPPA, por medio del cumplimiento de los compromisos del Plan de Acción Mugiment.
Udalerri kopurua	**114**	Número de municipios

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
6. «Mugiment txartela» proiektua zabaltzea, herritarrei txartel bakarrarekin Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritako kirol instalazioak erabiltzeko aukera ematen diena, proiektuaren parte den udal kiroldegiren batean aldez aurretik txartela eskuratuta.		6. Extender el proyecto «Mugiment txartela» consistente en ofrecer a la ciudadanía vasca la posibilidad de utilizar las instalaciones deportivas de diferentes municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi con una única tarjeta, obtenida previamente en uno de los centros deportivos municipales parte del proyecto.
Udalerri kopurua.	**114**	Número de municipios.
3. EUSKAL KIROLA BERDINTASUNEZ		**3. DEPORTE VASCO EN IGUALDAD**
1. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren eta Basque Teamen genero-ikuspegia sartzeko 2024-2028 Estrategiaren garapen koherentearekin jarraitzea, 2027rako ekintzak programatuz.		1. Continuar con el desarrollo coherente de la Estrategia 2024-2028 para la introducción de la perspectiva de género de la Dirección de Actividad Física y Deporte y Basque Team, programando las acciones para el 2027.
2. Kirol-arloan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko foro espezializatuetan parte hartzea.		2. Participar en foros especializados en igualdad de mujeres y hombres en el ámbito deportivo.
Foro kopurua.	**4**	Número de foros.
3. Emakume eta kirolari buruzko berariazko materialak sortu eta zabaltzea.		3. Crear materiales específicos sobre mujeres y deporte y su difusión.
Material kopurua.	**6**	Número de materiales.
4. Berariazko lantalde teknikoan lanean jarraitzea.		4. Continuar con el grupo de trabajo técnico.
5. ZURE TALDEKOAK GARA zerbitzua eskaintzen jarraitzea, kirol-arloan adingabeen eta emakume helduen aurkako indarkeria-egoerak prebenitu eta artatzeko.		5. Continuar ofreciendo el servicio ZURE TALDEKOAK GARA para la prevención y atención de las situaciones de violencia contra las y los menores y las mujeres adultas en el ámbito deportivo.
6. Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin eta GaituzSport Fundazioarekin batera GaituzSport programa sustatzea, berregokitzapen funtzionala eta birgizarteratze soziala suspertzea osasun orokor baten kontzeptu bidez. Planak genero ikuspegia txertatua izan beharko du.		6. Junto a la Federación Vasca de Deporte Adaptado y la Fundación GaituzSport, mantener el programa Gaituzsport para favorecer el proceso de readaptación funcional y reinserción social desde un concepto de salud global. Dicho Plan incorporará la perspectiva de género.
7. Kirol arloan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin euskara sustatzeko proiektuak bultzatzea.		7. Dinamizar junto a la Viceconsejería de Política Lingüística proyectos para el fomento del euskera en el ámbito deportivo.
4. KIROLA EUSKADIREN IKUR		**4. DEPORTE COMO SÍMBOLO DE EUSKADI**
1. EAEko goi-mailako kirolarien zerrendak egitea.		1. Elaborar las listas de deportistas de alto nivel de la CAE.
Kirolari kopurua.	**90**	Número de deportistas.
Teknikari kopurua.	**15**	Número de técnicos y técnicas.
Epaile kopurua.	**5**	Número de jueces y juezas.
2. EAEko goi-mailako zentroak birdefinitu eta arautzea, eta sareak sortzea.		2. Redefinir y ordenar los centros de alto nivel en la CAE, y crear redes.
Zentro kopurua.	**2**	Número de centros.
3. Basque Team Zentroko eta euskal federazioetako teknikarien arteko talde-lanaren koordinazioarekin jarraitzea.		3. Seguir el trabajo de coordinación entre las y los técnicos del Centro Basque Team y las federaciones vascas.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
4. Kategoria absolutuko nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan eta maila goreneko estatuko emakumeen ligetan parte hartzeko dirulaguntzak, nazioarteko lehiaketetan parte hartzea baldintzatzen badute.		4. Subvenciones para financiar la participación en competiciones deportivas oficiales de carácter internacional en categoría absoluta y en ligas estatales de mujeres, de máxima categoría, cuyo resultado condiciona la participación en eventos internacionales.
Entitate kopurua.	**40**	Número de entidades.
5. Nazioarteko goi mailako ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.		5. Subvenciones para la organización de eventos internacionales de alto nivel.
Ekitaldi kopurua.	**40**	Número de eventos.
6. Foru aldundiekin elkarlanean aritzea, talentua eta etorkizun handiko kirolarien jarraipena egiteko edo horiei laguntzeko.		6. Cooperar con las diputaciones forales en el seguimiento y ayuda a las y los deportistas talentos y promesas.
Etorkizuneko kirolari bezala izendatutako kirolari kopurua.	**362**	Número de deportistas promesa.
Talentu bezala izendatutako kirolari kopurua.	**75**	Número de deportistas talentos.
7. Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia sustatzea, dopinaren kontrako borroka bultzatzeko eta zero tolerantzia lortzeko. Dopinaren Aurkako Mundu Agentzian sartzea bultzatzea.		7. Promover la Agencia Vasca Antidopaje, con el objeto de potenciar la lucha contra el dopaje con el objetivo de tolerancia cero. Impulsar su integración en la Agencia Mundial Antidopaje.
8. Kirolean dopinaren aurkako programa garatzea, euskal kirol-federazioekin elkarlanean.		8. Desarrollar el programa contra el dopaje en el deporte, en colaboración con las federaciones deportivas vascas.
Lagin kopurua.	**350**	Número de muestras.
9. Arrauna, Pilota eta Herri Kiroletako Euskal Federazioen jarduera arrunt eta estrategikoetarako dirulaguntzak.		9. Subvenciones para las actividades ordinarias y estratégicas de las Federaciones Vascas de Remo, Pelota y Herri kirolak.
Dirulaguntza kopurua.	**3**	Número de subvenciones.
10. EAEn kanpo-proiekzioa izan dezaketen kirol-ekitaldiak antolatzen laguntzea.		10. Colaborar en la organización de eventos deportivos en la CAE con potencial de proyección exterior.
Ekitaldi kopurua.	**10**	Número de eventos.
11. Basque Country marka indartzea.		11. Potenciar la marca Basque Country.
Ekitaldi kopurua.	**40**	Número de eventos.
12. Goi mailako kirola bultzatzea Basque Team fundazioaren bidez.		12. Impulsar el deporte de alto nivel a través de la fundación Basque Team.
Bekadunen kopurua.	**125**	Número de personas becadas.
Número de proyectos.	**9**	Proiektu kopurua.

PROGRAMA

4513 KULTURAREN SUSTAPENA

ARDURADUNA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
KULTURA SAILBURUORDETZA
KULTURA SUSTATZEKO ETA KULTURA
ETA SORMEN INDUSTRIETAKO ZUZENDARITZA

PROGRAMA

4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA

RESPONSABLE

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
VICECONSEJERÍA DE CULTURA
DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN CULTURAL,
INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS

MEMORIA

Legealdi honen helburuetako bat kultura Gobernuaren politika estrukturalen erdigunera eramatea da, beste politika batzuekin batera, Euskadiren lurralde-garapenerako aukera bat den neurrian.

Kultura aktibazio sozioekonomikoaren ardatzekiko lankidetzarako zeharkako elementu gisa aurkezten da. Kulturaren eremuko gobernuko lanari, beraz, hiru ikuspuntutatik ekin behar zaio: kultura ekintza eraldatzailearen funtsezko elementu gisa, kultura oparotasuna eta pertsonak biltzen dituen sektore profesional gisa eta kultura erabateko eraldaketan dagoen sektore gisa, eraldaketa sozialarekin batera.

XIII. legegintzaldirako Gobernu Programak kulturaren sustapenarekin hartutako 4 konpromisoak jasotzen ditu: 46. konpromisoa; erakundeen arteko lankidetzan sakondu eta gobernantza onean; 47. konpromisoa; Euskadiko kultura-sorkuntza eta -ekoizpena bultzatzea, kulturaren euskal sortzaile, artista eta profesionalak ; 48. konpromisoa; Euskadiko kultura-eskaintza indartzea, gizartera hurbilduz egitasmo estrategikoen bitartez; eta 50 konpromisoa; kulturaren berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzea.

Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzak kultur politiken konplexutasuna lau helburutara eramatea proposatu du, XIII. legegintzaldiko Gobernu Programarekin, 2022-2028 Kultura Planarekin eta Kultura Sailburuordetzaren 2030 agendarekin bat etorriz:

1. Kultura gobernantzaren eremu guztietako erantzunkidetasunean sakontzea:

Kogobernantzako tresnen baitan proiektu estrategikoak garatu.

2. Euskal kulturaren sorkuntza eta ekoizpena eta gizartean kultura hedatzeko sistema publikoak indartzea:

Talentua garatzea aukerak areagotu.

El objetivo principal de esta legislatura es situar la cultura al centro de las políticas estructurales del Gobierno, junto con otras políticas, como una oportunidad para el desarrollo territorial de Euskadi.

La cultura es un elemento transversal para la cooperación con los ejes de activación socio-económica. La labor gubernamental en el ámbito de la cultura debe, por tanto, abordarse desde tres planos: la cultura como elemento clave de acción transformadora, la cultura como un sector profesional donde concurren prosperidad y personas, y la cultura como un sector en plena transformación, en paralelo a la transformación social.

El Programa de Gobierno para la XIII legislatura recoge los 4 compromisos con la promoción de la cultura: compromiso 46; profundizar en la colaboración interinstitucional y en la buena gobernanza; compromiso 47; impulsar la creación y la producción cultural en Euskadi, apoyando creadores/as, artistas y profesionales vascos/as de la cultura,; compromiso 48; fortalecer la oferta cultural de Euskadi, acercándola a la sociedad impulsando proyectos estratégicos; y compromiso 50; impulsar la innovación y la digitalización en la cultura.

Desde la Dirección de Promoción Cultural e Industrias Culturales y Creativas se propone trasladar la complejidad de las políticas culturales a cuatro objetivos en coherencia con el Programa de Gobierno de la XIII Legislatura y el Plan de Cultura 2022-2028 y la Agenda 2030 de la Viceconsejería de Cultura:

1. Profundizar en la corresponsabilidad en todos los ámbitos de la gobernanza cultural:

Desarrollar proyectos estratégicos en los instrumentos de cogobernanza.

2. Reforzar la creación y producción de la cultura vasca y reforzar los sistemas públicos para difundir la cultura en la sociedad:

Incrementar las oportunidades para el desarrollo del talento.

Sorkuntza eta ekoizpenaren berreskurapena bideratzea.

Kulturako profesionalen profesionalizazioa areagotzea.

Kulturarekiko zaletasuna areagotzea erakundeen arteko lankidetzari

Euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartzea, Etxepare Institutuarekin elkarlanean.

Kultura eta sormen-industriak garatzea eta Europan nabarmentzea.

3. Euskal kulturaren ikusgarritasuna handitzea:

Euskal kulturaren ikusgarritasuna eta hedapena areagotzea, Etxepare Institutuarekin batera elkarlanean.

Eskaintza sendotzea, euskal gizarteari eta nazioarteko komunitateari begira.

4. Kultura eta Sormen Industria sustatzea, berrikuntzaren sustapenaren bitartez, eta eraldaketadigitala sustatzea.

KSIentzako gobernantza eredua egituratzea.

Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien Barrutia garatzea.

I+G+b KSIetan, nazioarteko proiektua.

Euskal kulturak ingurune digitalean duen presentzia indartzea.

Kudeaketa, komunikazio eta produkzioko gaitasun digitala sendotzea.

Posibilitar la recuperación de la creación y la producción.

Aumentar la profesionalización de personas profesionales de la cultura.

Aumentar el gusto por la cultura gracias a la cooperación interinstitucional.

Reforzar la presencia internacional de la cultura vasca en colaboración con el Instituto Etxepare.

Desarrollar las Industrias Culturales y Creativas y destacarlas en Europa.

3. Aumentar la visibilidad de la cultura vasca:

Incrementar la visibilidad y difusión de la cultura vasca en colaboración con el Instituto Etxepare.

Consolidar la oferta, de cara a la sociedad vasca y a la comunidad internacional.

4. Profundizar en el sector de las industrias culturales y creativas, a través de la promoción de la innovación y promover la transformación digital:

Estructurar la forma de gobernanza para las ICC.

Desarrollar el distrito de las Industrias Culturales y Creativas de Euskadi.

Proyecto internacional sobre la I+D+i en las ICCs.

Reforzar la presencia de la cultura vasca en el entorno digital.

Consolidar la competencia digital en gestión, comunicación y producción.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. KULTURA GOBERNANTZAREN EREMU GUZTIETAKO ERANTZUNKIDETASUNEAN SAKONTZEA		**1. PROFUNDIZAR EN LA CORRESPONSABILIDAD EN TODOS LOS ÁMBITOS DE LA GOBERNANZA CULTURAL**
1. Kulturaren ezagutza tresnak, politika kulturalen erdigunean jartzea (Kulturaren Euskal Behatokia, KEB).		1. Poner las políticas de conocimiento en el centro de las políticas culturales (Observatorio Vasco de la Cultura, OVC).
Kulturaren sustapenaren eremuan eta KSI-en eremuan estatistika-eragiketa kopurua urtean (KEB).	**2**	Número anual de operaciones estadísticas del ámbito de promoción de la cultura e ICC (OVC).
Kulturaren sustapenaren eremuaneta KSI-en eremuan ikerketa eta azterketa kopurua urtean (KEB).	**10**	Número anual de investigaciones y estudios realizados del ámbito de promoción de la cultura y las ICCs (OVC).
Adierazle-sisteman eguneratutako adierazle kopurua urtean (KEB).		Número anual de indicadores actualizados en el sistema de indicadores (OVC).
Genero-jarraipenerako adierazle kopurua (KEB).		Número de indicadores de seguimiento de género (OVC).
Hizkuntza politiken jarraipenerako adierazle kopurua (KEB).		Número de indicadores de seguimiento de políticas lingüísticas (OVC).

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Behatokiaren estatistika-emaitzen hartzaile kopurua urtean (KEB).	**2.000**	Número anual de personas receptoras de resultados estadísticos del observatorio (OVC).
2. Parte hartzen duten eragileekin lankidetzan eta erantzunkidetasunean sakontzea.		2. Ahondar en la cooperación con los agentes implicados y la corresponsabilidad.
Mahai eta plataforma sektorialekin lan-bilera kopurua urtean.	**6**	Número anual de sesiones de trabajo con las mesas o plataformas sectoriales.
KEB-en jardunaldi eta lan-topaketa kopurua urtean.	**14**	Número anual de jornadas y encuentros de trabajo de OVC.
Genero-ikuspegia berariaz txertatuta duten proiektuen kopurua.	**6**	Número anual de proyectos con perspectiva de género explícitamente incorporada.
2. EUSKAL KULTURAREN SORKUNTZA ETA EKOIZPENA INDARTZEA ETA GIZARTEAN KULTURA HEDATZEKO SISTEMA PUBLIKOAK INDARTZEA		**2. REFORZAR LA CREACIÓN Y PRODUCCIÓN DE LA CULTURA VASCA Y REFORZAR LOS SISTEMAS PÚBLICOS PARA DIFUNDIR LA CULTURA EN LA SOCIEDAD**
1. Sorkuntza sustatzea eta ahalbideratzea.		1. Promover y posibilitar la creación.
Lagundutako koreografia-pieza berrien kopurua urtean.	**6**	Número anual de nuevas piezas coreográficas ayudadas
Lagundutako musika-sorkuntza berrien kopurua urtean.	**12**	Número anual de nuevas composiciones musicales ayudadas.
Sortutako gidoi zinematografiko berrien kopurua urtean.	**12**	Número anual de nuevos guiones cinematográficos ayudados.
Lagundutako antzerki-testu berrien kopurua urtean.	**12**	Número anual de nuevos textos teatrales ayudados.
Arte plastiko eta ikusizkoetan sorkuntza eta ekoizpenerako lagundutako proiektu berrien kopurua urtean.	**43**	Número anual de nuevos proyectos de creación y producción de artes plásticas y visuales apoyados.
Literaturan diruz lagundutako proiektu berrien kopurua urtean.	**12**	Número anual de nuevos proyectos de literatura apoyados.
Ilustrazioan diruz lagundutako proiektu berrien kopurua urtean.	**7**	Número anual de nuevos proyectos de ilustración apoyados.
Arte garaikidea bultzatzeko EREMUAK programaren testuinguruan sustatutako ekintza kopurua urtean.	**14**	Número anual de acciones apoyadas en el contexto del Programa EREMUAK para la promoción del arte contemporáneo.
Lagundutako sorgune artistikoetan sortzaileei eskainitako egoitza kopurua urtean tipologiaren arabera.	**150**	Número anual de residencias por tipología ofrecidas en los espacios de creación artística apoyados.
2. Sortzaile zein ekoizleen formakuntzaren ahalbideratzea.		2. Posibilitar la formación de personas creadoras y productoras.
Deialdi zein izendunen bitartez diruz lagundutako etengabeko formakuntzarako eta profesionalen laguntzarako proiektuen (arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, musika, arte plastiko eta ikusizkoak eta liburua) kopurua urtean.	**80**	Número anual de proyectos de formación permanente y apoyo a profesionales (artes escénicas, audiovisuales, música, artes plásticas y visuales, y libro), financiados vía convocatoria o nominativa.
3. Euskal sortzaileen eta sormenaren ikusgarritasuna handitzea.		3. Aumentar la visibilidad de los creadores y la creación vasca.
Euskadi literatura-sarietan emakumezko saridun kopurua urtean.	**4**	Número anual de premios de Literatura de Euskadi concedidos a mujeres.
Euskadi literatura-sarietan gizonezko saridun kopurua urtean.	**3**	Número anual de premios de Literatura de Euskadi concedidos a hombres.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Aurkeztutako Euskadi literatura-sarietarako emakumezko hautagai-kopurua urtean.	**31**	Número anual de candidaturas de mujeres presentadas a los premios de Literatura de Euskadi.
Aurkeztutako Euskadi literatura-sarietarako gizonezko hautagai-kopurua urtean.	**46**	Número anual de candidaturas de hombres presentadas a los premios de Literatura de Euskadi.
Ikusizko arteak hedatzeko laguntza jaso duten proiektuen urteko kopurua.	**19**	Número anual de proyectos de difusión de artes visuales apoyados.
Gure Artea sarietan, emakumezko saridun kopurua urtean.	**2**	Número anual de premios Gure Artea concedidos a mujeres.
Gure Artea sarietan, gizonezko saridun kopurua urtean.	**2**	Número anual de premios Gure Artea concedidos a hombres.
Aurkeztutako Gure Artea sarietarako emakumezko hautagai-kopurua urtean.	**5**	Número anual de candidaturas de mujeres presentadas a los premios Gure Artea.
Aurkeztutako Gure Artea sarietarako gizonezko hautagai-kopurua urtean.	**8**	Número anual de candidaturas de hombres presentadas a los premios Gure Artea.
Lagundutako euskal galeriak presentzia duten arte azoka kopurua urtean.	**2**	Número anual de ferias de arte con presencia de galerías vascas apoyadas.
4. Ekoizpena garatzeko deialdiak eguneratzea eta indartzea.		4. Reforzar y actualizar las subvenciones para desarrollar la producción.
Lagundutako musika proiektu-kopurua urtean.	**104**	Número anual de proyectos musicales apoyados.
Lagundutako arte eszeniko proiektu-kopurua urtean.	**52**	Número anual de proyectos de artes escénicas apoyados.
Lagundutako ikus-entzunezko proiektu-kopurua urtean.	**99**	Número anual de proyectos de audiovisual apoyados.
Diruz lagundutako euskarazko ikus entzunezko laborategi kopurua.	**6**	Número de laboratorios cinematográficos en euskera apoyados.
Lagundutako argitalpen proiektu-kopurua urtean.	**425**	Número anual de proyectos de edición de libros apoyados.
Emakume eta gizonen arteko berdintasuna balorazio irizpide deneko dirulaguntza deialdi-kopurua urtean.	**42**	Número anual de convocatorias de subvenciones en las que la igualdad entre mujeres y hombres es un criterio de valoración.
Euskara balorazio irizpide deneko dirulaguntza deialdi-kopurua urtean.	**39**	Número anual de convocatorias de subvenciones en las que el uso del euskera es un criterio de valoración.
Balorazio Batzordeetan parte hartu duten emakumeak urtean.	**60**	Número anual de mujeres participantes en comisiones de valoración.
Balorazio Batzordeetan parte hartu duten gizonak urtean.	**50**	Número anual de hombres participantes en comisiones de valoración.
5. Nazioartekotzea sustatzea.		5. Promover la internacionalización.
Zuzendaritza, Basque markapean, presentzialak zein digitalak diren nazioarteko azoketan zenbat aldiz izan da urtean.	**30**	Número anual de ferias internacionales, presenciales y digitales, a las que acude la Dirección bajo la marca Basque.
Nazioartekotze-poltsen onuradunen kopurua (arte eszenikoak, musika eta liburua).	**50**	Número anual de beneficiarios de las bolsas de internacionalización (artes escénicas, música y libro).
6. Arte eszeniko eta antzoki-sarearen arteko loturaren eraginkortasuna handitzea.		6. Aumentar la efectividad del vínculo entre la red de teatros y las artes escénicas.
SAREAn programatutako arte eszenikoen-funtzioen kopurua.	**1.800**	Número de funciones de artes escénicas en SAREA.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Euskal Antzoki SAREAren Idazkaritza Teknikoaren zerbitzua erabiltzen duten antzoki-kopurua urtean.	**71**	Número anual de teatros usuarios del servicio de la Secretaría Técnica de la Red Vasca de Teatros SAREA.
Arte eszenikoen konpainien eta EAE-ko espazio eszenikoen arteko lankidetzan sustapenean lagundutako proiektuak.	**15**	Proyectos apoyados para su desarrollo en colaboración entre las compañías de artes escénicas y los centros escénicos de CAE.
Aire zabaleko espazio publikoetan lagundu diren antzeztutako arte eszenikoetako emanaldi kopurua.	**277**	Número de actuaciones de artes escénicas en espacios públicos abiertos subvencionados.
7. Euskadiren eremuan eragina duten jaialdi eta zirkuituak sustatzea.		7. Promover festivales y circuitos con incidencia en el ámbito de Euskadi.
EAEn lagundutako kultur-azoka kopurua urtean.	**38**	Número anual de proyectos de ferias culturales apoyadas en la CAE.
8. Alderdi politikoen fundazioen proiektuetan parte hartzea.		8. Participar en proyectos de fundaciones de partidos políticos.
Biztanle kopurua.	**1.100.000**	Número de ciudadanos.
3. EUSKAL KULTURAREN IKUSGARRITASUNA HANDITZEA		**3. AUMENTAR LA VISIBILIDAD DE LA CULTURA VASCA**
1. Kulturarekiko zaletasuna eta ezagutza areagotzea.		1. Difundir el conocimiento y afición por la cultura.
Argitalpen-kopurua urtean Kulturkliken.	**26.133**	Número anual de publicaciones en Kulturklik.
Gizarte sareen erabiltzaile-kopurua urtean Kulturkliken.	**22.892**	Número anual de personas usuarias en redes sociales en Kulturklik.
Buletin elektronikoan harpidedun-kopurua urtean Kulturkliken.	**3.906**	Número anual de personas suscritas al boletín electrónico de Kulturklik.
Buletin elektronikoen kopurua urtean Kulturkliken.	**525**	Número anual de boletines electrónicos de Kulturklik.
Kulturklik webgunearen bisita-kopurua urtean Kulturkliken.	**5.055.961**	Número anual de visitas a las páginas web de Kulturklik.
Diruz lagundutako zine areto kopurua.	**50**	Número de salas de cine apoyadas.
Kultura-ohiturak sustatzeko lagundutako kanpaina-kopurua urtean.	**1**	Número de campañas de promoción apoyadas para el fomento de hábitos culturales.
Ikuslegoa sortzeko, fidelizatzeko eta ugaritzeko lagundutako proiektu-kopurua urtean.	**10**	Número anual de proyectos de creación, fidelización e incremento de públicos apoyados.
4. KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAK SUSTATZEA, BERRIKUNTZAREN SUSTAPENAREN BITARTEZ ETA ERALDAKETA DIGITALA SUSTATZEA		**4. PROFUNDIZAR EN EL SECTOR DE LAS INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS, A TRAVÉS DE LA PROMOCIÓN DE LA INNOVACIÓN, Y PROMOVER LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL**
1. KSIentzako gobernantza eredua egituratzea.		1. Estructurar la forma de gobernanza para las ICC.
Euskadi Sortzailea RIS3 gidaritza taldearen bilera kopurua urtean.	**4**	Número anual de reuniones del grupo de pilotaje RIS3 Euskadi Creativa.
Euskadi Sortzailea RIS3 lantalde berezien bilera kopurua urtean.	**4**	Número anual de reuniones de los grupos específicos RIS3 Euskadi Creativa.
2. Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien Barrutia garatzea (Basque District of Culture and Creativity, BDCC).		2. Desarrollar el Distrito de las Industrias Culturales y Creativas de Euskadi (Basque District of Culture and Creativity, BDCC).

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutitik (BDCC) zerbitzuak jaso dituzten KSI enpresen kopurua urtean.	**250**	Número anual de empresas ICC que han recibido servicios del Distrito Cultural y Creativo Vasco, BDCC.
Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutiaren (BDCC) web orriak izandako bisita kopurua urtean.	**68.000**	Número anual de entradas a la página web del Distrito Cultural y Creativo Vasco, BDCC.
Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutiak (BDCC) enpresa-gaitasunak hobetzeko antolatutako prestakuntza eta laguntza-ekintza antolatuen kopurua urtean.	**25**	Número anual de actividades estructuradas de formación y apoyo en competencias empresariales organizados por el Distrito Cultural y Creativo Vasco, BDCC.
3. I+G+B KSIetan, nazioarteko proiektua.		3. Proyecto internacional sobre la I+D+i en las ICCs.
a. Martxan jarritako nazioarteko I+G+b proiektuak KSIetan.	**2**	a. Número de proyectos internacionales de I+D+i en ICCs puestos en marcha.
4. Digitalizazio proiektuak artes eszenikoetan.		4. Proyectos de digitalización en el ámbito de las artes escénicas.
Diruz lagundutako proiektu kopurua.	**5**	Número de proyectos apoyados.

PROGRAMA

4514 ONDARE HISTORIKO ARTISTIKOA

ARDURADUNA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
KULTURA SAILBURUORDETZA
KULTURA ONDAREAREN, JABETZA INTELEKTUALAREN ETA LEGE GORDAILUAREN ZUZENDARITZA

PROGRAMA

4514 PATRIMONIO HISTÓRICO ARTÍSTICO

RESPONSABLE

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
VICECONSEJERÍA DE CULTURA
DIRECCIÓN DE PATRIMONIO CULTURAL, PROPIEDAD INTELECTUAL Y DEPÓSITO LEGAL

MEMORIA

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza sei zerbitzutan antolatzen da: Kultura Ondarearen Zentroa, Museoen Zentroa, Euskadiko Artxibo eta Dokumentu Ondare Historikoaaren Zerbitzua, Liburutegi Zerbitzua, Euskariana-Euskadiko Liburutegi Digitala eta, azkenik, Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa eta Jabetza Intelektualaren Erregistroa.

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak, zerbitzu horien bitartez hurrengo sei programa nagusi hauek bultzatzen ditu:

1) Euskal Kultura Ondarea zaintzea eta zabaltzea.

2) Museoen Euskal Sistema garatzea.

3) Dokumentu Ondarea kudeatzea eta Euskadiko Artxiboen Sistema garatzea.

4) Lege Gordailua eta Liburutegien Euskal Sistema garatzea.

5) Kultura Ondarearen Digitalizaziorako sistema garatzea eta Euskariana, Euskal Kulturaren Atari Digitala bultzatzea, euskal kulturaren gordailu bakar eta mundu osorako sartzeko atari gisa.

6) Zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea eta Euskal Autonomia Erkidegora jabetza intelektualaren alorrean transferituak izan diren zerbitzuak kudeatzea.

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren jarduera etengabe aldatzen ari den gizarte baten bilakaeran kokatzen da, non beharrezkoa den herritarrei bitartekoak eskaintzea kulturaren sustraiak eta hainbat alorretan sortzen ari diren berrikuntzak ezagutzeko.

La Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal se organiza en seis servicios: Centro de Patrimonio Cultural, Centro de Museos, Servicio de Archivos y Patrimonio Histórico Documental de Euskadi, Servicio de Bibliotecas, Euskariana -Biblioteca Digital de Euskadi y, por último, Asesoría Jurídica de Patrimonio Cultural y Registro de la Propiedad Intelectual.

La Dirección de Patrimonio Cultural Propiedad Intelectual y Depósito Legal impulsa los siguientes seis grandes programas a través de esos servicios:

1) Proteger y difundir el Patrimonio Cultural Vasco.

2) Desarrollar el Sistema Vasco de Museos.

3) Gestionar el Patrimonio Documental y desarrollar el Sistema de Archivos de Euskadi.

4) Desarrollar el Depósito Legal y Sistema Vasco de Bibliotecas.

5) Desarrollar sistemas de digitalización del Patrimonio Cultural y el Portal Digital de la Cultura Vasca, Euskariana, como repositorio único y portal de acceso planetario a todos los aspectos de la cultura vasca.

6) Proporcionar asesoramiento jurídico a la Dirección y gestionar los servicios transferidos a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de propiedad intelectual.

La actividad de la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal se enmarca en el devenir de una sociedad en constante cambio, en la que es necesario ofrecer a la ciudadanía los medios para conocer sus raíces culturales y las novedades que se están produciendo en los diferentes campos del ámbito cultural.

Genero-berdintasunaren alorrean nahi da, alde batetik, kulturaren kudeaketaren alorretan emakumeen presentzia sustatzea, horretarako erabiliz diru-laguntzak eta emakumeen parte-hartze handiagoa gure jarduerak sortzen dituen erakunde eta komisioetan; eta, bestetik, emakumeen jarduera azpimarratzea zuzendaritza honek berezkoak dituen kultura-elementuen sorkuntzan.

Hizkuntzaren normalizazioari dagokionez, esparru batzuetan, adibidez Liburutegien sisteman, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna ematen da, baina beste batzuetan euskararen presentzia anekdotikoa da eta beharrezkoa da neurriak hartzea egunero erabilia izan dadin, erabilera hori salbuespena ez izateko.

Sei programa horietan ardaztuta eta 2027ko aurrekontuari begira Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren lehentasunezko helburu eta ekintzak zeintzuk diren zehaztuko dira memoria honetan. Edozein modutan, gure jarduerek hari edo erdiguneko ardatza izaten jarraituko dute: euskal ondarearen digitalizazioa eta zabalkundea.

KULTURA ONDAREAREN ZENTROAk helburu nagusi hauek ditu 2027rako:

1) Euskal Kultura Ondarearen Lege berrian aurre-ikusten diren erregelamenduen garapena jarraitzea, bertan ezartzen diren aholku eta instituzioen arteko koordinazio-organoak osatzeko prozesua jarraitzeaz gain.

2) Euskal Kultura Ondare Higiezina bere alorretan izendatzeko lanak sustatzea, izendapenak Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea ezartzen dituen baldintza eta kategorietara egokituz.

3) Kultura Ondarearen katalogoak eta erregistroak eguneratzea eta berriak lantzea, kultura ondasunen tipologia ezberdinak kontuan hartuta.

4) Kultura ondare immaterialaren azterketa sistematikoa bultzatzea, Salbaguardia bermatzeko.

ATAL *SEC.*	PROG. *PROG.*		GUZTIRA *TOTAL*	KAPITULUAK *CAPITULOS* 2 Zeharkako zergak *Impuestos indirectos*	3 Tasak prez.pub. *Tasas prec.públ.*	4 Transf. arruntak *Transfe. corrientes*	5 Ondare sarrerak *Ingresos patrimon.*	6 Inb.err. besterentz *Enaj.Inver reales*	7 Kapital transf. *Transfe. capital*	8 Aktibo f. murrizketa *Dism. act. financie.*	9 Pasibo f. gehikuntza *Aumento pasi.fin*
02		**Kultura eta Hizk Pol** ***Cultura y Pol Ling.***	**370,0**	**0,0**	**366,0**	**0,0**	**4,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**
02	4511	*Kultura. Eg.eta Lag.* Est.Ap. Cultura P.L.	318,0	0,0	314,0	0,0	4,0	0,0	0,0	0,0	0,0
02	4512	*Kirolak* Deportes	21,0	0,0	21,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
02	4513	*Kulturaren Sustapena* Promoción de Cultura	25,5	0,0	25,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
02	4514	*Ondare Hist. Artist.* Patr.Histó.Artístico	5,5	0,0	5,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
		GUZTIRA ***TOTAL***	**370,0**	**0,0**	**366,0**	**0,0**	**4,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**

ORGANISMO AUTONOMOAK
ORGANISMOS AUTÓNOMOS

HABE

HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA
INSTITUTO DE ALFABETIZACIÓN Y REEUSKALDUNIZACIÓN DE ADULTOS

Instituzioaren eta programaren memoria
Memoria de la Institución y del Programa

Gastuen egoera-orria
El Estado de Gastos

Sarreren egoera-orria
El Estado de Ingresos

Gastuen laburpenak
Resúmenes de Gastos

Sarreren laburpenak
Resúmenes de Ingresos

HABE

HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

HABE, berezko eta Autonomia Elkarteko Administrazioaren besteko lege-nortasuna izan eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoz jardungo duen Herri-alorreko erakundea da. Eusko Legebiltzarraren 29/1983 Legez sortua izan zen.

Honako hauek dira HABEren egitekoak eta helburuak:

Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea sustatzea, euskara irakatsiz eta euskararen normalizazioa bultzatuz.

Helburu hori lortzeko, ikerketa sustatzea, bide, jardutze-era eta baliabide egokiak bilatuz.

Material pedagogiko-didaktikoak sortu eta argitaratzea.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzerako euskaltegien sorkuntza sustatzea.

Euskaltegietan helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko sortutako programak ezartzea.

Helburu horien garapenean ari diren erakunde publiko eta pribatuei laguntzea. Halaber, egitasmo berezietarako hitzarmenak burutzea.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari proposatzea euskaltegietan helduen alfabetatze-euskalduntze ikastaroak gainditzen dituztenei gaitasun-agiri edo ziurtagiriak ematea.

Memoria honek jasotzen dituen ekintza guztietan, emakume eta gizonen berdintasuna sustatuko da zeharka.

1. HABEk BERE ZERBITZUEN BIDEZ BURUTZEN DITUEN EKINTZAK

Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuak:

a) Helduen euskalduntze eta alfabetatzeko ikasketa-planak eta kurrikulu-diseinuak prestatu, eta orobat HABEren Erregistroan bildutako edo bilduko diren euskaltegietako irakasleak etenik gabe hezitzeko egitasmoak bideratzen ditu.

b) Helduen euskalduntze eta alfabetatzegintzan ari diren erakunde edo lan-taldeekin elkarlanean aritzen da, heziketa-proiektuak proposatuz eta bere irizpenera jarritako gaiei buruzko txostenak eginez.

INSTITUTO DE ALFABETIZACIÓN Y REEUSKALDUNIZACIÓN DE ADULTOS

HABE es una institución de Derecho Público con personalidad jurídica propia, independiente de la Administración de la Comunidad Autónoma y con plena capacidad para el cumplimiento de sus fines, que fue creada por Ley 29/1983 del Parlamento Vasco.

Las funciones y objetivos de HABE son los siguientes:

Promover la alfabetización y euskaldunización de la población adulta, enseñando la lengua vasca e impulsando su normalización.

Fomentar la investigación tendente al logro de ese objetivo y la búsqueda de métodos, vías y recursos adecuados para tal fin.

Crear y publicar materiales pedagógico-didácticos.

Promover la creación de centros para la euskaldunización y alfabetización de la población adulta.

Implantar en dichos centros los programas de alfabetización y euskaldunización de adultos creados para tal fin.

Ayudar a las entidades públicas y privadas que están operando en este sector, así como suscribir convenios para planes específicos.

Proponer al Departamento de Cultura y Política Lingüística la expedición de certificados o diplomas de aptitud para quienes superen los cursos de alfabetización y euskaldunización de adultos en los euskaltegis.

En todas las actividades recogidas en esta memoria, se promoverá de manera transversal la igualdad de mujeres y hombres.

1. ACTIVIDADES QUE HABE REALIZA A TRAVÉS DE SUS SERVICIOS

El Servicio de Didáctica de la Lengua:

a) Elabora los planes de estudios y diseños curriculares de euskaldunización y alfabetización de adultos, así como los planes de formación permanente del personal docente de los euskaltegis que estén inscritos o vayan a inscribirse en el Registro de euskaltegis de HABE.

b) Colabora con las entidades o grupos de trabajo que desarrollan tareas de alfabetización y euskaldunización de adultos, realizando propuestas de proyectos pedagógico-didácticos y emitiendo informes sobre los asuntos que sean sometidos a su consideración.

c) Euskara hobeto irakatsi eta zabaltzeko behar diren baliabide pedagogiko-didaktikoak programatzen ditu.

d) Euskara hobeto ikasi eta erabiltzeko behar diren baliabideak prestatu eta horiei buruz aholku ematen du.

e) Euskara ikasi eta zabaltzeko materialak argitaratzearekin eta banatzearekin zerikusia duten jarduerak burutzen ditu.

f) HABEk euskararen ikaskuntza eta erabilerarako ezarritako egitasmo eta norabideen aplikazioan euskaltegi bakoitza aholkatu, jarraitu eta ebaluatzen ditu.

g) HABEk eskuratu beharreko material bibliografikoa ikuskatu eta irizpena ematen du.

h) Euskaltegietako ikasleriaren eta, oro har, herritar helduen euskarazko komunikagaitasun-maila egiaztatzeko egiaztatze-deialdiak diseinatu, antolatu eta burutzen ditu.

Kudeaketa Zerbitzuak:

a) Erakundearen kontratazio-espedienteen tramitazio administratiboa egiten du, dagokien arloekin batera. Era berean, Euskadiko Ondarearen Legeak agindutakoaz gain, HABEren jabetzako edo honen esku dauden ondasun demanialen eta patrimonialen inbentarioa edukitzen du.

b) Zuzendari nagusiari laguntza ematen dio eta Aurrekontuen Aurreproiektuen prestakuntzan Zerbitzuak koordinatzen ditu.

c) Zuzendari nagusiari laguntza ematen dio aurrekontuen kudeaketan, eta aurrekontuen kontrola eta jarraipena gauzatzen du.

d) Langileen lansariak, ordainketak eta beste administrazio-alderdiak kudeatzen ditu.

e) Erakundearen lege-aholkularitza darama HABEren eskuduntza-eremuan HABEk hartzen dituen xedapen eta burutzen dituen egintza administratiboei buruz, alderdi juridikotik eta lege-arauen ikuspegitik iritzia emanez.

f) HABEren Liburutegia kudeatzen du, beharrezkoa den materialaren eskuratzea koordinatuz eta bere funtsak HABEko Zerbitzuen zein kanpoko erabiltzaileen eskura jarriz.

g) Herritarrei zuzeneko harrera eskaintzen dio eta Erakundeko Erregistroa eramaten du.

h) Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen 14. atalak dioen Euskaltegien Erregistroa eramaten du, eta Erakundearen helburuek eskatzen dituzten datu-baseak zein fitxategiak sortu eta egunean dauzka.

i) Diruz lagundutako euskaltegiek bete beharreko baldintzak bete ditzaten arduratzen da, eta dirulaguntza horiek emandako helburuetarako erabiltzen dituztela zaintzen du, behar denean euskaltegi horietan plangintza bat burutzeko txosten egokiak eginez.

j) Herritarrei euskara ikasteko emandako dirulaguntzak kudeatzen ditu.

c) Programa el material pedagógico-didáctico necesario para la mejor enseñanza del euskera y su difusión.

d) Elabora y asesora sobre los recursos pedagógico-didácticos necesarios para la mejora en el aprendizaje y uso del euskera.

e) Realiza actividades relacionadas con la publicación y distribución de materiales dirigidos al aprendizaje del euskera y su difusión.

f) Realiza el asesoramiento, seguimiento y evaluación de la aplicación de las directrices y planes establecidos por HABE para el aprendizaje y uso del euskera en cada euskaltegi.

g) Revisa e informa acerca del material bibliográfico a adquirir por HABE.

h) Diseña, organiza y lleva a acabo convocatorias de acreditación del nivel comunicativo en euskara del alumnado de los euskaltegis, y en general de la población adulta.

El Servicio de Gestión:

a) Tramita los expedientes de contratación del Organismo, en coordinación con las áreas afectadas. Asimismo, sin perjuicio de lo dispuesto por la Ley de Patrimonio de Euskadi, mantiene un inventario de los bienes demaniales y patrimoniales, adscritos o a disposición de HABE.

b) Colabora con el Director General y coordina los Servicios en la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos.

c) Colabora con el Director General en la gestión presupuestaria, y realiza el control y seguimiento del presupuesto.

d) Desarrolla las funciones de gestión de nóminas, retribuciones y demás aspectos relacionados con la administración del personal.

e) Ejerce la asesoría jurídica del Organismo, informando desde una perspectiva jurídica y dentro del marco normativo general las disposiciones y actos administrativos que, en el ámbito de sus competencias, emanen de HABE.

f) Gestiona la Biblioteca de HABE, coordinando la adquisición del material y poniendo sus fondos a disposición de los diferentes Servicios de HABE y del público en general.

g) Realiza la atención directa al público en general y la llevanza del Registro del Instituto.

h) Gestiona el Registro de Euskaltegis a que se refiere el artículo 14 de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, así como crea y mantiene al día los ficheros y las bases de datos necesarias para el logro de los objetivos del Organismo.

i) Vela por el cumplimiento de los requisitos que se exijan a los euskaltegis objeto de subvención, así como del adecuado destino de aquellas, elaborando, en su caso los informes oportunos con el fin de que los euskaltegis dispongan de una planificación adecuada.

j) Gestiona las subvenciones concedidas a la ciudadanía para el aprendizaje del euskera.

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bateginean eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian ta erakundearen berdintasun-plangintzan zehaztutakoa betearazteko berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzen ditu.

k) Impulsa y coordina políticas de igualdad para la ejecución de lo dispuesto en el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Estrategia para la Igualdad 2030 de la CAPV así como lo concretado en la planificación de igualdad del organismo.

2. 2026. URTEAN EGINDAKO NAGUSIAK

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREN (HEOC) DISEINUA ETA EGIKARITZA

Helduen euskalduntzearen araubide akademikoaren baitan, HEOCaren egitura eta deskribapena HABEren egitasmoen eta euskaltegien zereginen ardatz bilakatu da, betiere, helduen euskalduntzearen ikasprozesua sei mailatan egituratuz, eta ikaskuntzaren metodologia elkarreragin soziodiskurtsiboan ardaztuz, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarrituz, ekintza komunikatibotan definituz eta metodologia bera euskararen ezaugarri eta ezagutzen duen egoera soziolinguistikora egokituz.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean bildutako irizpideak aplikatu dira langai curricularrak egitean.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren inplementazio eta garapena elkarrekintzan bidera dadin, komunikabideak zabaldu zaizkie euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei, euren curriculum-proiektuen egokitzapenak bideratu ahal izateko.

Euskaltegiei, beren Curriculum Proiektua garatzeko eta eguneratzeko aholkularitza teknikoa eskaini zaie.

HEOCaren hurrengo eguneratzeari begirako zenbait arlo atzeman dira: genero-ikuspegia, ikuspegi inklusiboa, jardun biko ikasteredua, bitartekotza edota gaitasun digitala.

MATERIALGINTZA-PROIEKTUAK ETA HOMOLOGAZIOA

INGURA online ikas-plataformaren funtzionaltasun berriak (kudeaketa, matrikulazio gidatua, tutorizazioa eta espediente akademikoa) eta modelatzea definitu eta garatu dira mugikorreko eta idazmahaiko bertsioetan, sarbide librean eta matrikulatuan.

INGURA plataformaren garapen-, egokitzapen- eta hobekuntza-lanak egin dira 2026an. Horren barruan, online ikastaroen funtzionaltasunak, jarduera-motak eta berrikusketa-unitateak eguneratu eta hobetu dira; matrikulazio gidaturako, kudeaketarako eta tutorizaziorako (kalifikazioak, programazioa, jakinarazpenak eta abar) plugin berriak diseinatu eta garatu dira; eta plataformaren bertsioak eguneratu dira. Era berean, INGURAren etorkizuneko garapenak aztertzeko, aplikazio mugikor baten bideragarritasunari buruzko txostenak eskatu zaizkio EJIEri.

2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2026

DISEÑO E IMPLEMENTACIÓN DEL CURRÍCULO BÁSICO PARA LA ENSEÑANZA DEL EUSKERA A PERSONAS ADULTAS (HEOC)

Se han implementado la estructura y los contenidos del HEOC en los programas de HABE y en las actuaciones didácticas de los euskaltegis, estructurando el proceso de aprendizaje de euskera a adultos en seis niveles, y adoptando una metodología de aprendizaje basada en el enfoque comunicativo de la lengua, centrada en la interacción sociodiscursiva, definida en actividades de lengua y adaptada a las características del euskera y a su situación sociolingüística.

Se han aplicado los criterios recogidos en el Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Personas Adultas en la elaboración de material curricular.

Se han abierto espacios de interacción y colaboración con los euskaltegis y centros de autoaprendizaje del euskera para el desarrollo e implementación del Currículo Básico para la Enseñanza del Euskera a Personas Adultas con el fin de, establecer los mecanismos oportunos para canalizar las adecuaciones pertinentes de sus ECPS.

Se ha ofrecido a los euskaltegis asesoría técnica para el desarrollo y actualización de su proyecto curricular de centro.

Se han detectado algunas áreas de cara a la próxima actualización del HEOC: la perspectiva de género el enfoque inclusivo, la modalidad semipresencial, la mediación o la competencia digital.

PROYECTOS DE ELABORACIÓN Y HOMOLOGACIÓN DE MATERIALES

Se han definido y desarrollado nuevas funcionalidades (gestión, matriculación guiada, tutorización y expediente académico) y el modelado de la plataforma de aprendizaje online INGURA en las versiones escritorio y móvil, acceso libre y matriculado.

Durante 2026 se han llevado a cabo actuaciones de desarrollo, adaptación y mejora de la plataforma INGURA. Estas actuaciones han incluido la actualización y mejora de las funcionalidades de los cursos online, los tipos de actividades y las unidades de repaso; el diseño y desarrollo de nuevos plugins para la matriculación asistida, la gestión y la tutorización (calificaciones, programación, notificaciones, etc.); así como la actualización de las distintas versiones de la plataforma. Asimismo, se han solicitado a EJIE informes para analizar las posibilidades de desarrollo futuro de una aplicación móvil de INGURA.

INGURA A1 eta A2 ikastaroak eman dira hainbat euskaltegietan matrikulatutako ereduan.

Se han impartido cursos INGURA A1 y A2 en varios euskaltegis en el modelo matriculado.

INGURA-A1 ea A2ko ikastaroen erabiltzaile eta kudeatzaileen proposamenetatik eratorritako hobekuntzak inplementatzeko oinarriak ezarri dira.

Se han realizado las bases para la implementación de las mejoras derivadas de las propuestas realizadas por los usuarios y gestores de los cursos INGURA-A1 e INGURA-A2.

INGURA-B1 mailako eduki batzuk sortu eta artxibo digitalena entregatu dira. Lehen 35 unitateen autozuzenketa duten jarduerak, gidoiak eta inputak.

Se han creado contenidos y entregado archivos digitales de las primeras 35 unidades del curso del nivel B1: ejercicios autocorregidos, guiones e inputs.

INGURA egitasmoaren aurkezpen-saioak egin dira. Hartzaileak: euskaltegiak eta autoikaskuntza zentroak.

Se han realizado presentaciones del proyecto INGURA con los euskaltegis y centros de autoaprendizaje.

INGURA egitasmoaren inguruko prestakuntza eman zaie bakarkako saioetan, bai euskaltegietako, euskal etxeetako eta autoikaskuntza zentroetako kudeatzaileei eta baita irakasleei ere.

Se ha dado formación sobre la plataforma INGURA a los/las gestores/as y equipos docentes de los euskaltegis, euskal etxeak y centros de autoaprendizaje de modo individualizado.

INGURA egitasmoaren bideoen streaming soluziorako eta edukiak IKASBILen erabiletzeko EITBrekin hitzarmena berritu da.

Se ha renovado un acuerdo con EITB para la solución streaming de los vídeos de INGURA y uso de los contenidos en IKASBIL.

INGURA egitasmoaren garapen eta zabalkunderako hainbat ekimen egin dira.

Se han realizado actividades para el desarrollo y expansión de INGURA.

INGURA A1-A2 egitasmoaren sare sozialetarako bideoen zabalkundea IKASBIL ataraina egin da.

Se han publicado los vídeos INGURA A1-A2 diseñados para las redes sociales en IKASBIL.

INGURA egitasmoaren bideoak ETBn eta PRIMERAN plataforman emititzeko EITBrekin plangintza burutu da.

Se ha realizado un plan con EITB para la emisión de los vídeos INGURA en ETB y en la Plataforma PRIMERAN.

INGURA plataforman ITZULI teknologia eta Adimen artifizialaren bidez «Tutore eta Mintzalagun birtuala» garatzeko kontratua abian jarri da EJIE-BERRIKUNTZAren eskutik.

Se ha puesto en marcha el contrato con EJIE-BERRIKUNTZA relativo al desarrollo de la tecnología ITZULI y la creación a través de la IA de un «Tutor y ayudante lingüístico virtual» para la plataforma INGURA.

INGURA B2 mailaren aurrediseinuaren eta kontratazioaren analisia egin da.

Se ha analizado el diseño previo y contratación del nivel B2 de INGURA.

INGURA plataforman OSTALARITZA ikastaroa egokitu eta argitaratzeko lizitazioa abian jarri da.

Se ha puesto en marcha la licitación para la adecuación y publicación del curso OSTALARITZA en la plataforma INGURA.

EUSGUNEAK proiektuaren barruan, INGURA proiektuari dirulaguntzak emateko POCTEFAri buruzko aurkezpenak eta dokumentazioa egin dira.

Dentro del proyecto EUSGUNEAK se han realizado presentaciones y elaborado documentación relativa a POCTEFA para la concesión de subvenciones al proyecto INGURA.

2026an, HABE, FEVAS eta EHLABE INGURAren irisgarritasunari buruzko hasierako ideiatik proiektu pilotu zehatz batera igaro dira, metodologia definituarekin, A1-A2 ikastaroen azterketa teknikoarekin, baliabideen estimazioarekin, laguntza espezializaturako proposamenarekin eta adimen-desgaitasuna duten pertsonen plataformaren irisgarritasun kognitiboa baliozkotzera bideratutako diseinuarekin.

Durante 2026 HABE, FEVAS y EHLABE han pasado de una idea inicial de accesibilidad de INGURA a un proyecto piloto concreto, con metodología definida, análisis técnico de los cursos A1-A2, estimación de recursos, propuesta de acompañamiento especializado y un diseño orientado a validar la accesibilidad cognitiva de la plataforma con personas con discapacidad intelectual.

IKERGAITU taldearen baitan LATXAren bidez helduen euskalduntzerako tresna didaktikoak garatzeko ikerketa-lerroetarko proposamenak landu dira.

Se han trabajado en IKERGAITU propuestas sobre líneas de investigación basadas en LATXA para el desarrollo de instrumentos didácticos en el ámbito de la euskaldunización de adultos.

Ikasmaterialen sorkuntza eta erabilera indartzeko sustapen eta komunikazio-eredu berriak aztertu eta proposamenak egin dira.

IKASBIL atariaren eskukoetarako diseinua eta bilatzailea berritu dira eta atarian bideo bertikalak eskaintzeko garapena egin da.

IKASBIL ataria dokumentuz eta sekuentzia didaktikoz hornitzeko kontratazioa egin da eta lan-taldea abian jarri da.

Euskal komunikabideetatik hartutako testu, entzungai eta bideoak nahiz euskal literaturako irakurgaiak katalogatu eta HEOCaren irizpideei jarraikiz didaktizatu dira, IKASBIL atarian argitaratuko eta euskaltegietako ikasle eta irakasleen esku jartzeko.

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2rako sekuentzia didaktikoak sortu eta IKASBIL atarian argitaratu dira.

Euskal literaturaren ekoizpenaren jarraipena egin eta irakurgai mailakatu eta didaktizatuen gida osatzen jarraitu da IKASBIL atarian.

Se han analizado diferentes modelos de promoción y comunicación con el objetivo de impulsar el uso y creación de materiales didácticos.

Se han actualizado el diseño de IKASBIL para los dispositivos móviles y el buscador y se ha desarrollado la funcionalidad para publicar vídeos verticales en la portada.

Se ha procedido a la contratación para el abastecimiento de documentos y secuencias didácticas en el portal IKASBIL.

Se han catalogado y didactizado, según las directrices formuladas en el curriculum básico HEOC, textos periodísticos, audios y videos actuales de medios de comunicación euskaldunes y textos literarios para su uso por docentes y alumnado de los euskaltegis desde el portal IKASBIL.

Se han creado y publicado secuencias didácticas para los niveles A1, A2, B1, B2, C1 y C2 en el portal IKASBIL.

Se ha realizado un seguimiento de la producción literaria, para proceder a su posterior catalogación y didactización por niveles en el portal IKASBIL.

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

HABEren Prestakuntza Plana 2026 onartu da, helduen euskalduntzearen esparruan HABEk onartzen dituen prestakuntza-planen ezaugarriak arautzeko eta prestakuntza-jardueren homologazio-betekizunak ematen dituen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduaren baitan.

Euskaltegietako irakasleen eta zuzendaritza-taldeen prestakuntzarako ikastaro, mintegi eta hitzaldiak antolatu dira.

HABEren euskalduntze-mailak egiaztatzen diharduten aztertzaileen irizpideak bateratzeko saioak burutu dira.

Irakasleen etengabeko prestakuntzarako modulu berriak diseinatu dira.

Helduen euskalduntzearen 2026/27 ikasturtearen hasierako ekitaldi akademikoa burutu da.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma-HEOC tailerra antolatu da, HABEko teknikariek ezagutza didaktikoa partekatu eta osatu ahal izateko. Gai hauek jorratu dira: Euskaltegien Curriculum Proiektuen eguneratzea (2023ko prozesuaren gako nagusiak), HEOCaren gako nagusiak, EEMB LOaren gako nagusiak eta bitartekotza HABEren egiaztatze-deialdian.

Etxepare Euskal Institutuak eta EHUk antolatu duten «atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza-ikastaroan», helduen euskalduntzearen oinarrizko curriculumaren gidalerroei buruzko eskolak eman dira.

FORMACIÓN DEL PROFESORADO

Se ha aprobado el Plan de Formación de 2026 de HABE, de acuerdo con las disposiciones de la Orden de 5 de diciembre de 2019 por la que se regulan las características de los planes de formación que HABE aprueba en el ámbito de la euskaldunización de personas adultas, y se establecen los requisitos de homologación de acciones formativas en dicho ámbito.

Se han organizado cursos, seminarios y conferencias formativas destinados al profesorado y a directivos de los euskaltegis.

Se han desarrollado sesiones de unificación de criterios dirigidas a examinadores de las pruebas de acreditación de niveles de HABE.

Se han diseñado nuevos módulos para la formación continua del profesorado.

Se ha celebrado el acto de apertura del curso académico de euskaldunización de personas adultas 2026/27.

Se ha organizado un taller sobre el Currículo Básico para la Enseñanza de Euskera a Personas Adultas-HEOC, para que los técnicos de HABE puedan compartir y complementar sus conocimiento didácticos. Se ha tratado la actualización de los Proyectos Curriculares de los Euskaltegis (claves principales del proceso 2023), las claves principales del HEOC, las claves principales del Volumen complementario del MCER y la mediación en la convocatoria de acreditación de HABE.

Se ha participado en el curso de formación para la enseñanza del euskera y la cultura vasca en universidades extranjeras organizado por el Instituto Vasco Etxepare y la EHU y se ha impartido docencia tomando como base las directrices del currículo básico de euskaldunización de adultos.

HABEren 2026ko Prestakuntza Plana egikaritzeko, ikas-modalitate ezberdinak antolatu dira: online ikastaroak, jardun bikoak eta aurrez aurrekoak.

Para la ejecución del Plan de Formación 2026 de HABE se han organizado diferentes modalidades de aprendizaje: cursos online, semipresenciales y presenciales.

ARGITALPENAK

e-HIZPIDE aldizkariaren onlineko bi zenbaki eman dira argitara 107 eta 108.

e-Hizpide aldizkariaren 109 eta 110 zenbakiak plazaratzeko prestaketa-lanak bideratu dira.

IRAKASBIL ataria edukiz hornitzeko digitalizazio, katalogazio eta argitalpenak burutu dira, bai e-Hizpide aldizkariko artikuluen bidez, baita Irakasleen Formakuntza alorreko bideo-saileko bideoen bidez ere.

Argitalpen digitalak identifikatzeko DOI kode alfanumerikoak dituzten lotura iraunkorrak baliatu dira.

HABEk Itzulpen Saila bildumako 54. zenbakidun liburua («Nola irakatsi berba egiten?») IRAKASBIL atarian sarbide irekian argitaratzeko baimena eskatu du.

Itzulpen Saila bildumako 61. zenbakia itzultzeko eta argitara emateko lanak burutu dira.

Itzulpen Saila bildumako 62. zenbakia 2027an itzultzeko eta argitara eman ahal izateko, argitaletxearen baimena eskuratu da, bai paperezko bertsiorako, bai sarbide irekian argitaratzeko ere.

IRAKASBILek argitara emandakoen laburpena hilero biltzen duen e-Berrikaria buletinak argitaratu dira.

HABEk erabaki du 2027an ematea argitara ALTEren (Association of Language Testers in Europe) hizkuntza-probak eraikitzeko eta aplikatzeko eskuliburuaren bertsio berritua, eta, ondorioz, dagozkion baimenak bideratu dira euskaraz argitaratu ahal izateko.

PUBLICACIONES

Se han editado dos ejemplares de la revista e-HIZPIDE online, los números 107 y 108.

Se han realizado los trabajos de preparación para la edición de los números 109 y 110 de la revista e-Hizpide.

Se han llevado a cabo procesos de digitalización, catalogación y publicación en el portal IRAKASBIL de los artículos de la revista e-Hizpide y de los videos de la sección de formación de profesores.

Se han utilizado enlaces permanentes con código alfanumérico DOI para identificar las publicaciones digitales.

Se ha solicitado el permiso para publicar en acceso abierto en el portal IRAKASBIL el número 54 de la colección Itzulpen Saila de HABE («¿Cómo enseñar a hablar?»)

Se ha procedido a realizar las labores de traducción y publicación correspondientes al número 61 de la colección Itzulpen Saila.

Para la traducción y publicación en 2027 del número 62 de la colección Itzulpen Saila, se ha obtenido la autorización de la editorial, tanto para la versión en papel como para publicarlo en acceso abierto.

Se han publicado los boletines e-Berrikaria que recogen mensualmente el resumen de lo publicado por IRAKASBIL.

La dirección de HABE ha aprobado que se publique en 2027 la versión renovada del manual de construcción y aplicación de pruebas lingüísticas de la asociación ALTE (Association of Language Testers in Europe), y, en consecuencia, se han tramitado los permisos correspondientes para su publicación en euskera.

HABEREN FUNTS BIBLIOGRAFIKOA ZABALDU ETA LIBURUTEGIAREN ZERBITZUAK HEDATU

Ondare bibliografikoaren zabalkuntzarekin jarraitzeko 800 liburu berri erosi dira.

Katalogoa elikatu da 1.100 erregistro/ale berrirekin.

ALERTAK zerbitzuaren bitartez, 132 aldizkaritako zenbaki argitaratu berrien informazioa bidali zaie erabiltzaileei.

Liburutegiko zerbitzuak zabaltzeko helburuz, lankidetza-harremanak sendotzeko bilera proposamenak eta kontaktuak egin dira hainbat erakunderekin.

DIALNET datu-basea elikatu da sinatutako hitzarmenaren ondorioz konprometitutako aldizkarien informazioarekin.

AMPLIACIÓN DEL FONDO BIBLIOGRÁFICO Y DIFUSIÓN DE LOS SERVICIOS DE LA BIBLIOTECA

Se han adquirido 800 nuevos libros para continuar con la ampliación del fondo bibliográfico.

Se ha alimentado el Catálogo con 1.100 nuevos registros/ejemplares.

Desde el servicio ALERTAK, se ha enviado información de los últimos números publicados correspondientes a 132 revistas.

Con el objetivo de ampliar los servicios de la biblioteca, se han realizado contactos y propuestas de reuniones con distintos organismos.

Se ha alimentado la base de datos DIALNET con la información de las revistas acordadas en el convenio firmado con dicha entidad.

Liburutegiaren izaera eta zerbitzuak ezagutarazteko asmoz, bisita gidatuak egin dira.

Liburutegiko nobedadeen buletina bidali zaie harpidedunei.

HABE Liburutegiak parte hartzen duen Euskal Autoritateen Lantaldearen hamar lan-saio egin dira aurten. Jarraipena eman zaie lantaldeak onartutako autoritateak katalogo ezberdinetan txertatzeko lanei: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen AUBI autoritate-katalogo elebidunean, SUDOC (Frantziako unibertsitateetako liburutegien katalogoa) katalogoan eta Estatu Batuetako NACO autoritate-katalogoan.

Euskal Autoritateak Finkatzeko lantaldeak Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzan sortutako Autoritateak.eus webgunea elikatu da.

Jarraitu da liburu-aldizkarien soberakinak eskaintzen.

«Euskarari buruzko 2025eko bibliografia hautatua» argitaratu da euskarri digitalean eta zabalkundea egin da.

Liburutegiko bloga eta X (lehengo Twitter), Bluesky, Facebook eta Pinterest kontuak elikatu dira nobedade aukeratuen zabalkundea bideratzeko.

Sare sozialetan, nobedade aukeratuen berri ematerakoan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, feminismoa eta hizkuntza eta generoa aztertzen dituzten lanen berri emateko ahalegin berezia egin da.

Euskaltzaindiarekin lankidetzan aritu da Liburutegia euskararen historia sozialari buruzko erreferentzia bibliografikoen datu-basea eguneratua mantentzeko helburuarekin; aurten 2025eko erregistroen karga buruta da.

Con el objetivo de divulgar la naturaleza de la biblioteca y los servicios que ofrece la biblioteca, se han realizado visitas guiadas.

Se ha enviado el boletín de novedades de la biblioteca a las personas suscriptoras.

Se han realizado diez sesiones de trabajo del Grupo para el Establecimiento de las Autoridades Vascas, del que forma parte HABE Liburutegia. Se ha continuado con la incorporación a diferentes catálogos de las autoridades validadas por el grupo de trabajo: en el catálogo de autoridades bilingües AUBI, de la Red de Lectura Pública de Euskadi, en el catálogo SUDOC (catálogo de las bibliotecas universitarias de Francia) y en el catálogo de autoridades NACO, de Estados Unidos.

Se ha seguido alimentando el sitio web Autoritateak.eus, creado por el grupo para el establecimiento de las autoridades vascas con la colaboración de Eusko Ikaskuntza.

Se ha continuado con la tarea de ofrecer a otros centros los duplicados y excedentes de la biblioteca.

Se ha editado en formato digital la guía «Euskarari buruzko 2025eko bibliografia hautatua» y se ha llevado a cabo su difusión.

Se han alimentado el blog y las cuentas de X (antiguo Twitter), Bluesky, Facebook y Pinterest de la Biblioteca con vistas a la difusión de una selección de las novedades.

Al hacer difusión de una selección de las novedades en las redes sociales, se ha hecho especial hincapié en dar a conocer aquellos trabajos que tratan sobre la igualdad entre hombres y mujeres, feminismo y lengua y género.

La Biblioteca ha colaborado con Euskaltzaindia para mantener actualizada la base de datos de referencias bibliográficas relativas a la historia social del euskera. Se ha realizado la carga de los registros correspondientes a 2025.

BERDINTASUN POLITIKAK SUSTATZEA ETA KOORDINATZEA

2026.urtean, Berdintasun Unitateak sustapen, koordinazio eta aholku-lanarekin jarraitu du erakundearen arlo desberdinekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria testu bateginean eta HABEren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako plangintzan ezarritakoa sustatzeko.

Erakundearen berdintasun-arloko plangintza estrategikoa egitea, 2030eko Berdintasunerako Estrategiarekin lerrokatuz eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Berdintasunerako Planean txertatuz.

Berdintasun Batzordea erakundearen zuzendaritzarekin koordinatzea berdintasunaren arloan.

Berdintasunaren arloko jarduketen jarraipena eta 2025eko emaitzen ebaluazioa egin da, Emakundek ezarritako ebaluazio-tresnak erabiliz eta dagokion aplikazioan betez, erakundearen administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko egindako aurrerapenaren analisia egin da:

IMPULSO Y COORDINACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD

Durante el año 2026 la Unidad de Igualdad ha continuado con su labor de impulso, coordinación y colaboración con distintas áreas de la entidad para el impulso de lo dispuesto en el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la planificación para la Igualdad de mujeres y hombres de HABE.

Elaboración de la planificación estratégica en materia de igualdad del organismo alineándolo con la Estrategia para la Igualdad 2030 e integrándola en el Plan para la Igualdad del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Coordinación de la Comisión de Igualdad con la dirección del organismo en materia de igualdad.

Se ha realizado el seguimiento y la evaluación de resultados del año 2025 cumplimentando las herramientas evaluativas requeridas por Emakunde en el aplicativo correspondiente. Análisis del avance en la inclusión de la perspectiva de género en la actividad administrativa del organismo:

- Gobernu onaren ardatza

- Berdintasunerako plangintzaren hiru esku-hartze ardatzetako fitxak

Erakundeak Soldata Arrakala Murrizteko III. Plan Operatiboan egin beharreko jarduerak diseinatu dira, eta erakundeko Zuzendaritzarekin eta kudeaketa zerbitzu-buruarekin batera gai horri buruz Emakundek antolatutako bi lanalditan parte hartu da.

Erakundearen plataforma digitalen bidez, berdintasunari buruzko informazio interesgarria zabaldu zaie hainbat kolektibori, hala nola erakundeko langileei edo euskaltegietako irakasleei.

IVAPek berdintasunaren arloan eskaintzen duen prestakuntza-ibilbidea zabaldu da. Era berean, Emakundek edo beste sail batzuek Eusko Jaurlaritzan bultzatutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak zabaldu dira.

Genero-berdintasunaren esparruko 60 kontsultak artatu dira 15 aholkularitza-txostenak egin dira, eta berdintasun arloko 52 komunikazio eta berri zabaldu dira.

Eusko Jaurlaritzako Prebentzio Zerbitzuarekin eta berdintasun teknikariekin sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuen kudeaketaren prozesua hobetzeko lankidetzan aritu da. Hiru saio teoriko-praktikoetan parte hartu da erakundearen pertsonaleko arduradunarekin batera.

Elkarrizketa teknikoa eta koordinazioa berdintasunaren arloan eskumena duten sailarteko erakunde, organo eta unitateekin:

Eusko Jaurlaritzako Berdintasunerako Sailarteko Talde Teknikoan parte hartu da. Lan teknikoko 6 bilera egin dira gai hauei buruz:

- Berdintasun politiken eta teknikarien zilegitasuna eta ikusgarritasuna

- Eusko Jaurlaritzako eta bere egitura guztirako komunikazio estrategiak garatzea

- Sailetako barne-komunikazioa material bisualak sortu

Webgune instituzionalean berdintasunaren arloko informazioa argitaratu da, eta Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka egindako kanpaina instituzionalei estaldura eman zaie.

EUSKALTEGIEN ETA ZENTRO HOMOLOGATUEN JARDUERAREN ERAKETA ETA JARRAIPENA

HABEn inskribatutako euskaltegi eta autoikaskuntza zentruen kudeaketaren jarraipena egin da, indarrean dagoen araudia eta, batez ere, dirulaguntzetarako deialdiek ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

- Eje Buen gobierno

- Fichas evaluación sobre acciones igualdad en los tres ejes de intervención

Se han diseñado las actuaciones del organismo en el III Plan Operativo de Reducción de la Brecha Salarial, y se ha participado con la Dirección del organismo y la jefatura de Gestión en dos jornadas de trabajo organizadas por Emakunde sobre este tema.

A través de las plataformas digitales del organismo se ha realizado la difusión de información de interés en materia de igualdad a diferentes colectivos como el personal del organismo o el profesorado de los euskaltegis.

Se ha realizado la difusión del itinerario de formación en materia de igualdad ofrecida por el IVAP. Asimismo se han difundido acciones de sensibilización y formación impulsadas en el Gobierno Vasco por Emakunde u otros departamentos.

Se han atendido 60 consultas referidas a igualdad, se han elaborado 15 informes de asesoramiento y se han enviado 52 informaciones de interés en la materia.

Se ha colaborado con el Servicio de Prevención del Gobierno Vasco y las técnicas de igualdad en la mejora del proceso de gestión de casos de acoso sexual y acoso por razón de sexo. Se ha participado en las tres sesiones teórico-prácticas junto al responsable de personal de la organización.

Interlocución técnica y coordinación con entidades, órganos y unidades competentes en materia de igualdad a nivel interdepartamental:

Se ha participado en el Grupo Técnico Interdepartamental de Igualdad del Gobierno Vasco. Se han realizado 6 reuniones de trabajo técnico en los siguientes temas:

- Legitimidad y visibilidad de las políticas de igualdad y del personal técnico

- Desarrollar estrategias de comunicación del Gobierno Vasco y de toda su estructura

- Crear materiales visuales de comunicación interna en los departamentos

Se ha publicado en la web institucional información en materia de igualdad y se ha dado cobertura a campañas institucionales del Gobierno Vasco a favor de la igualdad y contra la violencia machista.

ORDENACIÓN Y SEGUIMIENTO DE LA ACTIVIDAD DE LOS EUSKALTEGIS Y CENTROS HOMOLOGADOS

Se ha realizado el seguimiento de la gestión de los euskaltegis y centros de autoaprendizaje inscritos en HABE para verificar el cumplimiento de la normativa vigente y, en particular, el de las condiciones impuestas en las convocatorias de subvenciones.

Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko, Hezkuntzako, Osasuneko, Justiziako eta Segurtasun sailetako, beste hainbat euskal erakunde publikotako eta udal zein foru Administrazio publikotako funtzionarioak edota enplegatuak euskalduntzeko eskariei erantzun die HABEk.

Horretarako kudeaketa-gomendioak sinatu ditu HABEk Eusko Jaurlaritzako sail horiekin eta aipatutako beste euskal erakundeekin. Horrela, batetik ahalbidetu dira talde bereziak, euskaltegietako ohiko plangintzetan txertatu direnak, eta bestetik, antolatu dira autoikaskuntzako jarraibide berezituak.

2026 urtean izapidetu du HABEk prezio publikoen Agindu berri bat, bertan islatu dadin, helduen euskalduntze sektoreko euskara irakasleen ordainsariak igotzearen ondorioz, HABEk, euskaltegien kontratazioaren bidez, eskainitako zerbitzuen prezioek izango duten igoera. Era berean, 2026an egiaztatzegintzako probetan izena emateagatik ordaindu beharrekoa berrikusi da.

Justizia eta Giza Eskubideak Sailarekin kudeaketa gomendioa du HABEk, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako ikasle presoei euskara irakasteko. Horrela, EAEko hiru espetxeetan taldeak izan dira.

Arestian aipatutako Eusko Jaurlaritzako sail zein erakunde horiekin eta beste Administrazio publikoekin izenpetutako kudeaketa gomendioak oinarri hartuta, euskalduntzearen edo euskara ikastaroen zerbitzua edo eskaintza HABEk kontratazio legediaren gerizpean bideratu du «eskuratze sistema dinamiko» izeneko figura dela medio. Laugarren aldiz heldu dio kontratazio prozedura honi HABEk 2026 urtean Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren aholkuekin bat etorriz.

Euskalduntzeko sektorearen jarduera jakinarazteko eta horren matrikulazioa sustatzeko informazio eta sentsibilizazio-kanpaina, Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin lankidetzan, 2026ko irailetik aurrera.

EUSKALDUNTZEKO SEKTOREAREN FINANTZAZIOA

Euskaltegiek eta autoikaskuntzarako zentro homologatuek 2025-2026 ikasturtean zehar zein neurritan bete dituzten HABEren dirulaguntzak eskuratu ahal izateko baldintzak egiaztatu da eta dirulaguntzetarako deialdiei dagozkien kitapenak egin dira.

Euskaltegi pribatuei eta autoikaskuntzarako zentro homologatuei zuzendutako 2025-2026 ikasturterako finantziazio sistemaren zehaztu da eta jarraitu da egonkortasuna ematen sektoreari irakasleen baldintzak hobetzeko helburuarekin abian jarri zen finantzaketa sistema berriari eutsita.

HABE ha respondido a las solicitudes de euskaldunización del personal funcionario y/o empleado de la Administración General del Gobierno Vasco, de los departamentos de Educación, de Salud, de Justicia y de Seguridad, así como de otras Instituciones públicas vascas y de las Administraciones Públicas municipales y forales.

Para ello HABE ha firmado encomiendas de gestión con dichos departamentos del Gobierno Vasco y con las citadas instituciones vascas. Así, por un lado, se han habilitado grupos específicos, que se han integrado en la planificación habitual de los euskaltegis y por otro lado, se han organizado procesos particulares de autoaprendizaje.

HABE ha tramitado una nueva Orden de precios públicos en el 2026, a fin de plasmar en ella, el aumento de los precios de los servicios ofrecidos por HABE, a través de la contratación de euskaltegis, como consecuencia de la subida de los sueldos de los profesores de euskara del sector de euskaldunización de personas adultas. Asimismo, en 2026 se ha revisado el precio por la inscripción en las pruebas de acreditación.

HABE tiene una encomienda de gestión con el Departamento de Justicia y Derechos Humanos para impartir clases de euskera a las personas presas en los centros penitenciarios de la CAV. De hecho ha habido grupos en los tres centros penitenciarios.

En base a las encomiendas de gestión antedichas con los departamentos y entes del Gobierno Vasco, así como con las demás Administraciones públicas, HABE ha encauzado la euskaldunización o el servicio u oferta de los cursos de euskara bajo el amparo de la legislación de contratación, mediante la figura denominada «sistema dinámico de adquisición». Ha sido la cuarta vez que HABE recurre a este procedimiento de contratación en el año 2025, ajustándose a las indicaciones de la Dirección de Patrimonio y Contratación del Gobierno Vasco.

Campaña de información y sensibilización para dar a conocer la actividad del sector de euskaldunización y promover su matriculación, en colaboración con la Viceconsejería de Política Lingüística, a partir de septiembre de 2026.

FINANCIACIÓN DEL SECTOR DE LA EUSKALDUNIZACIÓN

Se ha controlado el cumplimiento de las condiciones a las que están sujetos los euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje, en orden a la consecución de las subvenciones de HABE a lo largo del curso 2025-2026 y se han ejecutado las correspondientes liquidaciones de las convocatorias de ayudas.

Se ha definido el sistema de financiación para el curso 2025-2026 dirigido a euskaltegis privados y centros homologados de autoaprendizaje y se ha continuado dotando de estabilidad al sector manteniendo el nuevo sistema de financiación que se puso en marcha con el objetivo de mejorar las condiciones del profesorado.

Euskaltegi pribatuei eta autoikaskuntzarako zentro homologatuei gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko dirulaguntza deialdia egin da hirugarren aldiz. Deialdi honetan, gainera, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baliabide horiek irisgarri egingo dituzten gailu eta egokitzapenak ezartzeko laguntzak eman dira.

Udal euskaltegiei bideratutako dirulaguntza deialdia egin da 2025/2026 ikasturterako.

Euskara ikasle diren herritarrei dagokienez, komunikagaitasun-mailak euskaltegiko edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ebaluazioproba bidez maila gainditu edota HABEko mailaren bat edo honen baliokidea egiaztatu duten ikasleei zuzendutako 2026 ekitaldiko laguntzen deialdia egin da. Horretarako baldintzak bete dituzten ikasle guztiei (lagungarriak izan daitezkeen ikasle potentzialak) gutun pertsonalizatua helerazi zaie mailing bat eginez Kultura saileko kontu baten bidez eta bere harreraren jarraipena egin da Google Analytics tresnaren bitartez. Eskaera egiteko bi txanda izan dituzte ikasleek.

2026. urtean, 2024an abiatutako dirulaguntza bati jarraipena eman zaio: C1C1 helburu maila duten 16 eta 18 urte bitarteko adina duten gazteei begirako dirulaguntza deialdia, C1C1 maila helburu duten ikastaroak egiteagatik. Ikasle hauek 0,60 euro ordaindu behar izan dituzte orduko aldez aurretik matrikula egiteko garaian.

2026. urtean dirulaguntzen arloan berrikuntza nagusia A2ko ikasleei emandako dirulaguntza izan da. 2025ean A1eko ikasleei bideratutako dirulaguntza mantendu egin da eta A2koa jarri da indarrean hasitako bideari jarraipena emanez. Dirulaguntza horien helburu nagusia ikasleek euskara ikasten hasteko unean orduko ordaindu beharrekoa murriztea izan da. Gauzak honela A1eko eta A2ko ikasleek 0,60 euro ordaindu dute orduko maila horietan.

EBALUAZIOA ETA EGIAZTATZEGINTZA

ALTEko partaidetzaren barruan ohiko jardueretan parte hartu da: inkesta linguistikoetan, MS 18. euskaratu da, erakundeko ohiko bilerata online parte hartu da, adierazpenetan parte hartu da, eta bozkatu da Batzorde Iraunkorrean delakoan partaideak aukeratzeko. C1eko Q-agiria mantentzeko lanak burutze-fasean daude.

Gainera, Horretarako, 2026an, ekainean ALTEk eskatutako egokitzapenak egiteko plana abian jarri da EHUko Paule Elosuaren laguntzaz. 2026an 30 bat aztertzailek parte hartu dute lan horretan.2026ko apirilean txostena bukatu eta ALTEra bidali da.

Curriculumaren A1 eta A2 mailak egiaztatzeko dagozkion agiriak banatzen ari dira dagokien epeetan.

Se convoca por tercera vez una subvención a euskaltegis privados y centros homologados de autoaprendizaje para el acceso a recursos destinados a la digitalización de aulas. En esta convocatoria se han concedido ayudas para la implantación de dispositivos y adaptaciones que hagan accesibles estos recursos al alumnado con necesidades educativas especiales.

Se han convocado las ayudas a los euskaltegis públicos para el curso 2025/2026.

En cuanto se refiere a la ciudadanía estudiante de euskara, se han convocado las ayudas del ejercicio 2026 destinadas a las alumnas y los alumnos que hayan superado el nivel en el euskaltegi o centro homologado de autoaprendizaje mediante la prueba de evaluación o hayan acreditado alguno de los niveles de HABE o su equivalente. Para ello, a las personas estudiantes que han cumplido las condiciones (potenciales solicitantes) se les ha remitido una carta personalizada mediante un envío por mailing desde una cuenta del Departamento de Cultura y el seguimiento de su recepción se ha efectuado por Google Analytics. El alumnado ha podido solicitar esta ayuda en dos turnos.

En el año 2026 se le ha dado continuidad a una subvención iniciada en el año 2024: la convocatoria de subvenciones para las personas jóvenes de entre 16 y 18 años, que tengan como objetivo el nivel C1C1, por realizar cursos con dicho objetivo C1C1. Este alumnado ha tenido que aportar con antelación 0,60 euros por hora al matricularse.

En el año 2026 la principal novedad en materia de subvenciones ha sido la subvención a los alumnos de la A2. En 2025 se ha mantenido la subvención destinada a los alumnos de A1 y ha entrado en vigor la subvención para el A2 dando continuidad al camino iniciado. El objetivo principal de estas subvenciones ha sido reducir el desembolso de los alumnos en el momento de iniciar el aprendizaje del euskera. Así las cosas, los alumnos de A1 y A2 han pagado 0,60 euros por hora en esos niveles.

EVALUACIÓN Y ACREDITACIÓN

Dentro de la participación en ALTE, se ha participado en actividades habituales: en encuestas lingüísticas, se ha traducido el MS 18 al euskera, se ha participado en las reuniones habituales de la organización en línea, se ha participado en declaraciones, y se ha votado para elegir a los miembros del Standing Comitee. Los trabajos para mantener la Q del C1 están en fase de elaboración.

Además, para ello, en el año 2026 se ha puesto en marcha el plan de adaptación solicitado por ALTE en junio con la colaboración de Paule Elosua de la UPV/EHU. En 2026 una treintena de examinadores participaron en este trabajo. En abril de 2026 se finaliza el informe y se envía a ALTE.

Se ha procedido a la expedición de los diplomas correspondientes de los niveles A1, A2 en los periodos correspondientes.

